



ARGIA

POBREZIARA BULTZATUAK

**NONDIK DATOR
PENTSIO SISTEMA
INJUSTU HAU?**




» **LOLITA CHAVEZ:** "LAPURTZEA ETA HILTZEA EUROPARI EZ ZAIO MINGARRI, BETI EGIN DUENA BAITA"

» **LOUISA WALL:** ZEELANDA BERRIKO ERRUGBI IZARRA, LGTBI AKTIBISTA ETA MAORIA

» **RUKULA:** LURREAN JOTZEN DEN ROCKAREN ORDENA ETA DESORDENA

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
2.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpituluekin.




Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.




Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.



Ekitaldiak

Dantza, musika, antzerkia... askotariko emanaldiak klik batean.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Gazan bizirauteko elkarri zorak barkatzen hasi behar izan dute

IRITZIAK

- 17 Asier Blas Mendoza
- 18 Iñaki Martinez de Luna
- 19 Inma Errea
Leire Narbaiza Arizmendi
- 20 Bea Salaberri



Rukula taldeak bizi duen une indartsua aitzakia hartuta mintzatu gara beraiekin. Bigarren diskoa prestatzen ari dira. DANI BLANCO

- 38 GORPUTZA
- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 47 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MIKEL SERRANO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Lolita Chavez: "Europarrok lapurretaren espirituak janda bezala zaudete" / Miel A. Elustondo
- 22 | Pentsio duinak: denon lanak, denon eskubidea / Igor Agirre
- 28 | Mural agentzia: Sao Paulo ko periferietatik kronika burujabeak / Lander Arbelaiz Mitxelena
- 32 | Kataluniako murgiltze eredu: Espainiak mehatxupean duen hizkuntza eredu arrakastatsua / Ainhoa Bretos
- 34 | Louisa Wall: "Zeelanda Berriaren erabateko deskolonizazioa lortzeko esperantza daukat" / Amaia Zabala Tolosa
- 44 | Rukula: "Bakoitza libre da gurekin nahi duena sentitzeko" / Kepa Matxain

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estixu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetza: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

Newroz piroz be

Udaberriarekin batera ehunka milaka kurduk ospatu dute beren egunik handiena: Newroz, urte berria. Kurdistan, estatirik gabeko munduko herririk handiena –bost estatutan zatituta–, gerrak inguratuta bizi dira. Azken erasoaldirik gogorrena, Siria iparraldeko Afrin eskualde kurduan izan da. 250.000 lagunek etxea atzean utzi behar izan dute Turkiako armadak eta ISISekin lotura duen Siriako Armada Askeak, elkarlanean eta Errusiaren ezinbesteko laguntzarekin, egindako erasotik ihesi. Bai, 2018an, estatu bateko armadak beste estatu bateko lurak inbaditu eta herritarrek bonbardatu ditu nazioarteko legedia urratuz. Horren ustezko zaintzaileak? Nazio Batuen Erakundea eta Europar Batasuna? Ez daude, ez dute erantzuten eta larriena dena, inork ez ditu espero. Kurduak, beste behin ere, autodefentsa armatura kondenatu dituzte.

Argazkia: Kauldi Iriondo Galarraaga · Testua: Axier Lopez



“Gaizki ordaindutako lanak aukeratzeko joera dute emakumeek” adierazi du Confedebaskeko presidente Roberto Larrañagak, emakume eta gizonen arteko soldata arrakalaz galdetuta.



“Kokoteraino bizitzan dena norbere hautuen ondorio dela pentsatzen duen jendeaz #planto”

@naizena_maddi



“Berriz ere kausa-ondorio erlazio faltsu bat. Zergatik ez ‘Emakumeek aukeratzan dituzten lanak gaizki ordaintzeko joera dute enpresariak?’”

@aitzolpari



“Soldata arrakalari aurre egiteko Gobernuak osatutako mahaian ikuspegi hau egotea oso kezagarria da. Nolako aurrerapausoak emango ditugu ardura emakumeen bizkar jartzen duen patronalarekin?”

@BetaurrekoMorea



Zerbitzu publikoen aldeko greba arrakastatsua Ipar Euskal Herrian

Mikel Asurmendi

@masurmendi

Zerbitzu publikoen langile kopurua gutxitu nahi du Emmanuel Macronek. Funtzio publikoetako sei eremu berrituko zuela agindu zuen presidente izendatua izan aitzin. Gobernuaren eta sindikatuen arteko hirugarren oldartzea izan zen lehengo asteko greba. Hitzarmen soziala finkatzeko abagunerik ez dago Frantziako Estatuan.

Bost milioi dira egun funtzionaritza publikoetan ari direnak eta Macronek 120.000 lanpostu kendu nahi ditu bost urtean. Baionan 15.000 jende manifestatu zen neurri horren aurka -500.000 Frantziako Estatuan-. Mobilizazioa zazpi sindikatuk deitua zen, Iparraldeko indar politikoei, abertzaleek barne. Ipar Euskal Herrian SNCF-ko langileak (Frantziar Burdinbideen Sozietate Nazionala) izan ziren mobilizazioen

aitzinean, alta bada, osasun, irakaskuntza hala nola administrazioako arlo askotako enplegatuak ere karrikara atera ziren. Edonola ere, Iparraldean nahiz Estatuan trenbideetako langileek egindako grebak izan ditu oihartzun eta eragin handienak.

Macronek urte bat bete du Estatuaren gidaritzan. Hautatua izan eta berehala Lan Kodean egin zituen aldaketek milaka pertsona aterarazi zituen kalera. Sindikatuen iritziz, langile publikoen eskubide sozialak (soldaten txikitzea, erretarako bermeak, lan-postuen izaera prekarioa...) apalduz joan ahala, aldiari aldiko gobernuek langileen estatu publikoa negoziatzeko aldean Lan Hitzarmena adosteko baldintza urriak dituzte.

Macronek kontratu sozial berri bat erdietsi nahi du. Langileen ustez baina, gobernu honek politika liberalek iraganeko jendartearen ongizatearen lorpenak suntsitzen jarraitu nahi du.

“Facebook bijilantziarako enpresa bat da”

EDWARD SNOWDEN, NSA SEGURTASUN AGENTZIAKO LANGILE OHIA

“Bizitza pribatuen inguruko datu zehatzak bildu eta saltzea ardatz duten negozioak ‘bijilantziarako konpainia’ gisa izendatu ziren garai batean. ‘Sare sozial’ deitzea engainu arrakastatsua da, Gerra Departamentua bilakatu zenetik Defentsa Departamentua”, dio Snowdenek. Facebooki lotutako eskandaluaren ostean egin ditu adierazpenok. Cambridge Analytica enpresako analista batek aitortu du Cambridgek Facebooketik 50 milioi herritarren datuak pilatu zituela legez kanpo, AEBetako 2016ko hauteskunde kanpainan Donald Trumpen hautagaitza babesteko. 2018-03-18



FAUNA PUBLIKOA

"Zenbait tokitan lortu dugu erabateko berdintasuna"

Oihan Vega, Gazteako esataria
(Puntua aldizkaria)

Kartolak jantzita



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Bergarako Martxanarak talde feministak eman dizkion erantzunengatik iritsi naiz Oihan Vegaren iritzi-artikulu batera, "M8, eta orain zer?" du titulua, pixka bat Leninen *Zer egin?* hura bezala, baina komunismorik gabe, zeren komunismoak ere ez baitu, Vegaren esanetan, matxismoa desagerrarazten -Twitterren irakurri diot erromeriako esplikazio hori, artikuluak eragindako polemikaren erantzunetan-, eta beraz, galdetzen du -berriz ere artikuluan-, zergatik salatu behar den kapitalismoa greba feminista batean edo zergatik uztartu nahi duten ekologismoarekin; eta gero pasatzen da txalotzera Osakidetzan, hezkuntza sisteman eta EITBn jada lortuta dagoen "erabateko berdintasuna".

Sudurzuloak itxi behar izan ditut, urtu berri zaidan burmuina mahaian barrena ez isurtzeko. Lasai, hau irakurtzen ari zarenerako bueltatu da materia grisa egoera solidora. Idatzi aurretik galdera batzuk egiteak eragotzi zezakeen iritzigintzaren frakaso hau. Adibidez: EITBn "erabateko berdintasuna" lortu bada, zergatik atera ziren kalera M8an EAEko irrati-telebista publikoko Vegaren lankide pila bat, gainontzeko emakume feministekin batera, planto egitera? Pista: erantzunik bururatu ezean, lankide horiei galdetu. Galdetu gehiago, galdetu dena: aldarrikapen feministak zer daukan ikusteko ekologismoarekin? Ez al dira emakumeak hondamendi ekologikora bidean den mundu honetan bizi, horri buruz zeresana edukitzeko? Kapitalismoa zergatik aipatzen duten? Agian egunero haren ondorioak jasaten dituztelako, bikoiztuta, ordaindu gabeko lanen zama euren gain hartzen dutelako?

Duela hiru asteko grebak aldaketa handi eta txiki askoren premia eraman zuen kalera. Gauzei begiratzeko kartola maskulinoak kentzea da, segur aski, gizonezko gehienok egin behar dugun lehenbizikoa. ■

EZ HANKA EZ BURU!



ADUR

ANALISIA



Testuinguruak errazten duen errepresioa



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIA: EUSKO JAURLARITZA

Pentsatzen du PPK oraindik badela zukutzerik euskal gatazkaren atala eta komeni zaionean hala egiten du. Boterea duenak finkatzen die memoriaren edo demokraziaren marra gainerakoei: bai ezker abertzaleari, baina baita aliatu jeltzaleari ere. Katalunian ere berdintsu ari da jokatzeko alde horretatik.

Madrilek ehunka preso politiko ditu bere eskuetan, estutzeko eta nahieran erabiltzeko. Pertsonen eskubideen erabilera politiko oso argia da, bai presoena bai beren senideena, baina tira, gutxitan entzungo diezu politikari jeltzaleei halakorik azaltzen publikoki, nahiz eta pribatuan hala dela onartzen duten. Badakizue, izan behar da pragmatikoa.

Egoera honetan memoriaren alorrean egiten dena ahuldade handikoa da. Ez dut zalantzan jartzen bide horretan ezker-eskuin lanean ari diren pertsonen borondate ona, baina zalantza handiak ditut iraganaren irakurketaz dagoen kontsentsu ezarekin zerbait lor daitekeen; eta zeresanik ez, ez dut inongo zalantzarik, PPren egungo politikarekin eginetako dela ezer lortzea.

Egiazko bake prozesu baten testuin-

guruan baino, irabazle eta galtzaileen logikan eraiki nahi dira ETaren ondorengo adostasun berriak. Eta egungo baldintzekin, adostasun horiek nekez emango dira, besteak beste, ezker abertzalearen espazio sozio-politiko zabal horrek ez diolako uko egingo bere 50 urteko historia anitz horri. Edo, ETatik harago eta honen jardura armatuaren aurka egonda ere, PPren jarrera inposatzaile eta errepresiboa erresistentzia askoren bilgune ere bilakatzen delako.

Testuinguru horretan kokatu behar da ETaren biolentzia injustua izan dela esatea ala ez, edo presoei ongi etorriak egitea. Gauza bat da ETA gorestea, eta beste bat sufritu duenari elkartasuna agertzea, maite denari ongi etorria ematea. Partehartzaileen mezuak, hitzek eta azalpenek finkatu beharko lukete ETaren gorespenarekiko muga, ez ongi etorri ekitaldiak berak, bestela ekitaldi horiek ere "dena da ETA" politikaren barruan sartzen ari dira, horrek dituen ondorio ezagun guztiekin. Testuinguru horretan hobeto ulertzen dira Oihana Garmendia, Miren Zabaleta, Antton Lopez eta Olatz Dañobeitiaren atxilotetak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Urkulluk eta Barkosek ezin dute beste aldera begiratu



Juan Mari Arregi

Euskal pentsionisten etengabeko mobilizazio masiboek ezin dituzte Hego Euskal Herriko arduradun politikoak axolagabe utzi, Uxue Barkos eta Iñigo Urkullutik hasita. Ezin dute Madrilera begiratu eta ezikusiarrena egin, arazoa beraia ez balitz bezala.

Urkulluk eta Barkosek erantzukizun handia dute, euren eskumenekin milaka euskal pentsiodunen ordain-sari miserableak hobetu ditzaketelako. Badakite Madrilera, Mariano Rajoy buru, ez dituela pentsionisten eskakizunak aseko. Alargunen gutxieneko pentsioak baino ez ditu ukituko, jasotzen duten kopuru eskasa apur bat igoko du besterik gabe.

Bi lehendakariak badakite euren lurraldeetako 200.000 biztanleek 300 euroko alarguntza pentsio negargarriak edo 700 euroko pobrezia-aren langatik azpikoak kobratzen dituztela. Europako Gutun Sozialak 1.080 euroko gutxieneko pentsioak ezartzen ditu. Urkulluk agintzen duen erkidegoaren kasuan diputazioek 1.200 milioi euro gehiago bildu dute aurten. Eta Barkosenaren kasuan diru-bilketa ona izan da baita ere. Testuinguru horretan, zergatik ezin da onartu euskal erakundeek Estatuko miseria-ko pentsioak osatzea, kontuan izanik europar gutunak hori eskatzen duela? Urkulluk eta Barkosek ondo dakiten bezala, gutxieneko pentsioak DSBE eta antzeko laguntza bidez osatzen segitzea erabat urria da: 1.080 eurotik oso urrun, pentsioak hutsalak dira hala ere.

Pentsioak duintzea lehentasun kontua da, aberastasuna banatze-ko orduan jartzen dena. Oinarritzak da kalean dauden pentsionisten aldarrikapenak entzutea, denak oso arrazoizkoak eta onargarriak baitira. Borondate politikoa besterik ez da behar.



ECUADOR ETXEA

Inor ez delako ilegal

EUSKAL HERRIA. Etxebizitza, osasuna eta lana bezalako eskubide funtsezkoetan eta eguneroko beste makina bat errealtatetan herritar askok bizi duten arrazakeria eta xenofobia salatu dute egun hauetan Euskal Herrian, martxoaren 21 Arrazagatik Diskriminazioaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta. Bilbon (irudian), "Hiritartasuna guztiontzat" lelopean egin zuten manifestazioa, eta Donostian berriz, "Langileak gara, ez neskameak" lelopean, etxeko lanetan aritu ohi diren migratzaileak izan baitziren protagonistak.

Familien zaintza lanen kontziliaziorako neurriak

Maddi Txintxurreta

@mtxintxurreta

Familien zaintza lanen kontziliaziorako neurriak hizpide izan dituzte Gasteizko Legebiltzarrean, aitatasun baimena luzatzea eta errenta baxuko familientzat Haurreskolak doakoak izatea, besteak beste.

Eszedentzia...

Jaurilaritzak proposatu du aita edo bigarren guraso direnei hiru hilabeteko eszedentzia ematea. Haurra jaio eta lehen hilabetea hartu ahal izango dute, betiere amaren amatasun baimenarekin bat egin gabe.

... %100 kobratuta

Egungo lau asteko aitatasun baimenari gehituko zaizkio hiru hilabeteak. Baimenak iraun bitartean, kontziliaziorako oinarriaren %100a kobratuko luke. Gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko neurriak ere proposatu dira.

Haurreskola doan

18.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familientzat Haurreskola doakoa izatea eskatu dute EH Bildu eta Elkarrekin Podemosek, eta ados agertu dira alderdi guztiak. Guztira 80 proposamen baino gehiago onartu zituzten.

USTELKERIA



25

orduko galdeketa egin diote Nicolas Sarkozy Frantziako presidente ohia. 2007ko hauteskunde kanpaina legez kanpo Libiako diruarekin finantzatzea egotzi diote.


50

milioi euro eman zizkion Gaddafik Sarkozyri, bien arteko bileretan itzultzaile aritu zen enbaxadore libiarraren arabera.



ERREKALEOR

Errekaleorreko auzia "elkarriketarekin" konpontzeko eskatu dute Gasteizko hainbat lagun ezagunek. "Hitza sustatzeko" adierazpena plazaratu dute, besteak beste, Lourdes Oñederrak, Daniel Castillejok eta Javier Armentiak.



MONSANTO

Sinadura bilketari eta herritarren protestei entzungor eginez, Europar Batasunak baimena eman dio Bayerri Monsanto orosteko. Horrela, hazi eta ongari kimikoen munduko enpresa handiena bilakatuko da.



PATOLOGIZATUTA

Moldaketa bat egin behar izan dute Osakidetza lan deialdi publikoko psikiatriako gai zerrendan, patologizatuta ageri baitziren LGBTI kolektiboko kideak. Gehitu Elkartek eskatu du hori dioen 43. puntua ezabatzeko eta hala egin du Osakidetza.

Gazan bizirauteko elkarri zorrak barkatzen hasi behar izan dute



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Israelgo armadaren eraso militarrek eta ihesbiderik gabeko setioa batetik, Aginte Palestinarrak Hamasi presio egiteko egindako soldaten murrizketa handiak bestetik, Egiptok pasabide oro ixtea azkenik, itolarri gero eta handiagoan bizi dira bi milioi jende Gazan. Urtarrilean mezu bat zabaldu da sare sozialetatik gazatarren artean: "Barka itzazu zorrak eta saritua izanen zara". Bizimodu *normal* batetik txirotasunera amildutako familia askok arnasa hartu du.

Maha Hussaini kazetariak kontatu du *Middle East Eye* hedabidean: "Merkatari gazatar baten ekintza on batek zorrak barkatzeko kanpaina eragin du". Bitxi egiten da gaurko munduan, nahiz eta David Graeber antropologoak erakutsi duen lehenbiziko zibilizazioak erai-ki zirenetik ziklikoa izan dela zorren barkamena bake sozialak eskatuta. Egia da erlijio guztietan errepikatzen dela gomendioa, berdin Allah gurtzen dutenen artean edo Jainko kristauarenean ("Barkatu gure zorrak, guk gure zordunei barkatzen diegun bezala...") baina ez da usu praktikatzeko.

Osama Abu Dalalek -kontatu du Hus-sainek- urtarri hasieran erabaki zuen zorrak ezabatzea Deir al-Balah errefuxiatu eremuan daukan oinetako dendan fakturak pagatu ezinik zebiltzan bezeroei. "Ezin ditut begiak itxi ez ikusteko nola ari den txirotasuna nagusitzen nire gizartean. Ezagutzen ditut gurasoak oso berandu etxeratzen direnak, haurrak oheratuta daudenean, ez dakitelako zer egin haiek nozitutako behar gero eta handiagoak asetzeko".

Facebookeko bere orrian oraindik irakur daiteke -arabieratik makinak itzulirik- urtarriaren 9an idatzita utzi zuena: "Osama Zakaria Abu Dalal, Abu Dalal Oinetako Dendaren jabeak, Jainkoaren errukia eskatuz, iragartzen du bezero guztiei barkatuko zaizkiela oraindik pagatzeke dauzkaten zorrak, (...) Gazan bizi dugun egoera ekonomikoagatik. Ekintza honek balioko al du bide bera

jarrai dezaten beste merkatarikideek, gure herriaren sufrikarioa arintzeko. Jainkoak babes gaitzala zuek eta gu".

Ordu gutxiren buruan eztabaida berotu zen Facebooken, erabaki horren gainean kanpaina antolatzea proposatuz. Ekintzaile eta kazetariak beste merkatariei hasi zitzaizkien galdezka. Traola ere hedatu zen, "Barkatu eta saritua izango zara" itzul daitekeena.

Zenbait merkata Abu Dalal bezala bezero atzeratuei zorrak barkatzen hasi ziren. Kanpainaren barruan beste batzuek erabaki zuten behartsuenei debalde eskaintzea beren salgaiak, janariak, janzkiak, botikak, otordu beroak, berogailuak, oheko arropak...

Sustatzaileek kalkulatu dute bi aste laburretan ia 200.000 euroko zorrak barkatuko zirela Gazan. Abu Dalalen kasuan, berak ez du aitortzen inolako zifrarik, "ezta emazteari ere". Galdezka joan zaion kazetariari arrasto hau utzi dio, halere: hemezortzi urterekin lanean hasi zenetik aurreztutako guztia adina-koa dela barkatu duen kopurua.

Zorren amnistia kanpainan parte hartzeko era berritzaile gehiago laster hasi ziren zabaltzen. Al Helou International ospitaleak iragarri zuen haur bila dabil-tzan 120 bikoteri dohainik egingo zielela *in vitro* ugaltze tratamendua eta gainerako zerbitzuetan ere beharpenak egingo zizkiela beharrean diren familiei. Egia den arren Gazan osasun zerbitzu publikoak doakoak direla, krisiarekin erabat blokeatuta daude, makineriak



mantenu barik, argindarra eskuratzeko ere arazoekin, edozein operaziotan urte eta erdiko itxaron zerrendekin...

Zenbait abokatu ere hasi da urrik es-kaintzen aholkularitza juridikoa paga-tu ezinean direnei. Muhammed Seyam abokatu gazteak Hussainiri azaldu dio zergatik hartzen duen parte kanpainan: "Hemengo jendea desengainatuta dago bertako eta nazioarteko arduradunekin; bi milioi pertsona setiopean bizi dira hamar urte baino gehiagorik eta horiei ezartzen zaien zigor kolektiboari aurre egiteko neurriak hartzeko arduradunok ez dira gauza. Jendea bere kasa molda-tzeko garaia iritsi zaio".

Ihesbiderik gabe

2017ko uztailan Nazio Batuen Erakun-dearen txosten batek azaldu zuen Gazan bizi diren bi milioi herritarren -horietatik 1,3 milioi errefuxiatuak- bizimodua gero eta larriagoa zela eta Gaza hitzez hitz *bizi ezineko leku* bilakatua zela.

Europar Mediterraneoko Giza Eskubi-deen Behatokiaren arabera, Gazako biz-tanleen %39 txirotasunaren muga az-pitik bizi da, Zisjordaniako kopuruaren bikoitza, Israelen setioagatik eta Gazak Israelekin bezala Egiptorekin dauzkan pasabideen itxiera eten gabeagatik.

New York Times amerikarrak otsai-lean titulatu zuenez, "Gaza finantza kri-sian amilduta, egoera lehertuko ote den beldurra zabaldu da". David M. Halb-fingerrek hondamendiaren adibidetzat aurkeztu du Muhammad Abu Shaaban,



'Al Qud News' agentziak zabalduko argazkian, Gazako merkatarik batek –bezera behartsuenei atzeratu zaizkien zorren zerrenda eskuan– eta bi ekintzailek erakusten dute zorrak barkatzeko kanpainaren traola, hizki arabiarretan dioena: "Barkatu eta saritua izango zara". Kobraketa oso zaileko zorrak ahazteko kanpainak familia gazatar askori lagundu die beren finantza ahulduak berriro zerotik abiatzen.

45 urte, Palestinako Aginteak duela bi hilabete erretretara bidalitako funtzionarioa, lehendakariaren goardiakoa. Sei ordutaraino itxaron behar izaten du ilaran hileroko soldata jasotzeko: 232 euro gaur egun, lehengo 1.075en ordez.

Bizitza arras aldatu zaio Abu Shaabani. Ez zaio iristen semearen lizeoko matrikula pagatzeko. Emazteari barazkiak erosten dizkio otorduetarako, haragirik gehiago ez. Asko dabilta horrela. Kazetariak aurkitu ditu guraso arruntak seme-alabei otorduan orain arte aberreei ematen zizkieten leka eta barazkiak prestatzen. Gazako espetxeak, berriz, gero eta gehiago ari dira betetzen beren zor atzeratuak pagatu ezin dituzten dendari eta merkatariz.

Israelek dozena bat urtez blokeatu du Gaza, zorrotz murriztuz elikagaien eta klase orotako horniduren sarrera

bezala bertako jendeen irteera. Juduek ez dute lortu, hala ere, gazatarrek botoa kentzea Hamasi, hori baldin bazuten helburu. Honek urte luzez setioari izkin egin ahal izan dio Sinai aldera eta batik bat Egipto aldera zulatutako tunelekin. Estatu kolpearen ostean Egiptok gogortu egin du jokabidea Hamasekiko eta Israel ari da lurpeko hesi garesti batez zigilatzen Gazaren mugalde osoa, neke handiz barrutik urratutako tunelak baliogabetuz.

Egoera asko larriagotu da iaztik, Hamasen eta Palestinako Aginte Nazionalaren arteko tirabira gogortzearekin. Mahmoud Abbasek, Hamasen gaineen presio egiteko, utzi zion Gazako argindar zentralaren erregaiak pagatzeari, Israelek Gazari saltzen zion elektrizitatea pagatzeari bezala. Eta oraindik Gazan nominan dauzkan funtzionarioei

soldatetan murrizketa oso handiak egin zizkien.

Presioagatik edo dena delakoagatik, Hamas itun berri batera iritsi zen Abbasekin iazko udazkenean. Baina laster berpiztu dira desadostasunak eta urte amaierarako berriro gauzak okertu ziren. Abbasek Gazako bere 60.000 funtzionarioei soldatak %30-%40an apaldu baldin badizkie, Hamasen 40.000 enplegatuek hilabeteak daramatzate kobratu gabe.

Maha Hussainik elkarrizketatu du Ahmed ere, 42 urte, taxi gidaria, Al Shati errefuxiatu gunean bizi dena. Sei hilabete zeramatzan bizilekuaren 117 euroko errenta pagatu gabe, taxiarentzako gasolina 1,4 eurotara igo zutenetik. Atzeratutako zorra barkatu omen dio etxe jabeak: "Eskertuta nago. Neguan nire familia epelean atxiki ahal izango dut". ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Lolita Chávez kitxe herrien kontseiluko buru

«Europarrak lapurretaren espirituak janda bezala zaudete»

Guatemalatik ihesi heldu zen iragan udan gurera Lolita Chávez, kitxe herrien kontseiluko liderra. Bizia, natura, lurra, territorioa eta emakumeen duintasuna ditu irabazi beharreko borroak. Transnazionalak eta oligarkiak, etsai, behin baino gehiagotan jarri dute ataka gaitzean Lolita Chavez.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Guatemalara itzultzeko garaia duzularik, durduzaturik zaitugu, emozioak eta ki-rioak dantzan.

Hango egoera ez baita batere eroso-a herrien eta lurraren defendatzaileontzat. Oraintxe, defendatzaile-ehiza garaia duzu. Talde kriminalak inpunitate osoz ari dira batzuen eta besteen kontra. Baita kazetarien kontra ere. Ez legoke gaizki zuk haiekin bat egitea, elkartasuna adieraztea. Hasteko, bi kazetari hilak dituzte, batera, orain dela ez asko. Ter-ritorioetako berri eman ohi zuten, hau da, jatorrizko herriak gauden lurraldeak. Zaila dago han bizitzen.

Iragan ekainaz gero zaitugu Guatemala-tik kanpora.

Azken eraso-a jaso ondoren etorri nin-tzen. Bizia, Ama Natura, Lurra eta Te-rritorioaren Defentsarako Kontseiluko kide naizenetik, maia kitxe herriaren ordezkari, behin baino gehiagotan era-so didate. Kontseilutik, transnazionalen

kontra saiatzen gara borrokan, meate-giak eta hidroeletrikoak beren esku dituzten korporazioen aurka. Orain-txe sekulako egurra jasotzen ari gara, [Espainiako enpresaburu] Florentino Pérez-en ACS transnazionalaren parte-tik. Bozeramaile izendatu nindutenean, 2007an, hasi ziren nire kontrako era-soak. Nire kontra etorri ziren, zuzen-zu-zen, transnazionalekin lotura estuak di-tuen jendea zen.

Atentatuak eta heriotza mehatxuak, ira-kurri dudanez.

2012an, adibidez, ni nindoan autoa ge-rarazi zuten. Sikarioak ziren, soldata-peko hiltzaileak. Hil egin nahi izan nin-duten, baina emakume taldea ginen, eta nola edo hala libratu nintzen. Hala ere, gurekin zihoan bat kolpatu eta hortzak atera zizkieten. Beste bat, hebain-he-bain egin zuten, odoletan utzi arte. Jo eta su ari ziren, komunitatea gu erreska-tatzera etorri zen arte. Egia esateko, ko-

munitateek salbatu gaituzte erasoetatik, territorioetako jendeak.

Zeinen soldatapeko dira sikarioak?

Enpresaburuena, lurjabe handienak eta oligarkiarenak, izan oligarkia kre-o-lo tradizionala, izan azalera datorrena.

Lolita Chávez Ixcaquic

Santa Cruz de Quiche, Guatemala, 1971

Irakaslea da, militantea, eta kitxe herrien kontseiluko buru. Euskal Herrian izan dugu iragan urteko ekainetik, Eusko Jaurkitzaileen Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Baterako Babesteko Programaren barruan. Aurtengo urtarilaren amaieran, bestalde, Ignacio Ellakuria garapenerako lankidetzara saria jaso zuen.



Gonzalo Fernández Orellana y J. J. J. J.
Alternativas
al poder corporativo
20 propuestas para una segunda etapa de transformación
en diálogo con las emergencias tecnológicas

Azalera datorren hau, oroz gain, militarrekin bat eginda ari da, talde paramilitarrak, narkoa eta sikarioak barne. Bestalde, hor dira beti marak, gainerakoien eskulan zikina egiteko prest, jomuga nor den batere axola ez zaiela. Guztien gainetik, ordea, enpresa transnazionalak dituzu, haiek dira buru, haien esanetara ari dira gainerako guztiak. Oligarkia, berez, transnazionalaren morroi baino ez da. Eta transnazionalak badaki oligarkiak krimen antolatua gidatzen duela.

Ekonomia eta politika, eskutik doazela salatu duzu behin baino gehiagotan.

Halaxe da eta. Familia oligarkak ez dira asko, zortzi dira, edo hamar. Bosch Gutiérrezen familiak, edo Alvaro Arzu Irigoienenak –euskal deiturak dituzu–, kontrolatzen dituzte lurak. Legearen arabera, jabe dira, kontuan hartu gabe gerra garaian laborariak desjabetu zituztela, AEBetako Gobernuaren konplizitatearekin. Lehenengo, gobernu iraultzailearen kontrako estatu kolpea jo zuten oligarkiek eta, ondoko gerran, era guztietako krimen eta txikizioen artean, laborariak lekuak husteratu behartu zituzten, lurak uztera. Tarte horretan, beren izenean erregistratu zituzten lurak. Hargatik daude jatorriko herrien lurak familia handien eskuetan.

Geurea dugu kulpa, europar zuriona.

Guztiz. Korporazio patriarkal neoliberalen botere mafioa Europari sakon lotuta dago. Europak, hemen esango zenuketenez, “aditu” sorta bat badu, benetako adituak jatorriko herriak lapurtzen, desjabetzen, hiltzen eta suntsitzen. Jaiotzatikoa balitz bezala da, sakona. Europari ez zaio mingarri, beti egin duena baita. Odoletan daramazue. Inbasioa bultzatzen duen eredu intergenerazional bat daramazue barruan. Horixe gertatzen da, barruan daramazuela, ezin ikusia zaizuela, zeuen osagai delako, ez duzelako zeuen izatea deskolonizatu hemen, hemen ere kolonizazioa gertatu baitzen. Zeuen barrura begira hasiko bazinete, eta ikusi nola torturatu zituzten hemen zuen arbasoak, hemengo amatxi jakintsuak, Zugarramurdin erre zituzten emakumeak... analisi kritikoa egiteko gai izango zinatekete.

Zer emango luke analisi horrek?

Eredu makroekonomiko jakin baten az-



pian hazi zarete hemen, eta horrek zuen izaera itoarazi du. Gezurrezko garapenaren ideia sartu dizuete, gezurrezko eskubideen ideia, eta ongizatea. Estatu neoliberalak “izan behar” bat ezarri dizuete, eta haraxe zoazte, buruz, “izatea” bera osatu gabe. Lapurretaren espirituak janda bezala zaudete, zuek baino gutxiago bagina bezala ikusten gaituzue. Supremazia horrek “izan behar” denaren burbuilan sartu zaituzte, eta hortxe zaudete.

Inbasio espainolaz gero, zuen historia sarraskia, genozidioa, idokitzea, arpilatzea, bortizkeria ugari gorputzetan... izan omen da. Hitz asko dira...

Ez dira, bakarrik, hitza, horixe bizi dugu, etengabe, belaunez belaun: nire amari bizi izan zuen; ama, horren kontra borrokatu zen; ni, horren kontra ari naiz borrokan, eta oraintxe, nire alaba borroka horretatik edaten ari da, ez dezaten sarraskitu, gu sarraskitzeko planak baitaude, ez da halabehar hutsa, gu



Aitzakia kakazuak

“Geure buruak duin ikusi nahi ditugularik, geure buruak nola izendatu pentsatu behar izan dugu, eta herri indigenak baino areago, jatorriko herriak gara, antzinakoak, eta geure kosmobisioak eta bizierak ditugu. Indigena, azken finean, kolonizazioari lotutako terminoa da, ‘indio’ esateko modu goxoa. Nazioarteko erakundeek ‘indigena’ erabiltzen irauten dute, Errege Akademiak eta gisako aitzakia kakazuak emanez”

Flipatu

“Gu akabatzen ari dira, eta mundua ez da jabetzen. Euskal Herrian ikasi dudana hitza erabiliz, ‘flipatu’ egiten dut horretaz konturatzen naizenean. Hedabideek ezkutatu egiten dute gertatzen ari dena. Internet eta sare sozialak hor dira, baina berriemaileak bere baitako bahea gaingitu behar du berri emateko. Oso latza da, baina premiazkoa da egoerari aurre egitea”

sarraskitzeko plan ondo burututakoa baino. Guatemalan gertatu dena exekuzio-planak dira: sarraskia, idokitzea, arpilatzea, gure gorputzen kontrako sexu-bortxaketa sistematikoa, genozidioa... Frogatuta dago gauza planifikatua dela.

Guatemalaren kasua da, bakarrik, edo dira Guatemala, Ekuador, El Salvador, Honduras...

Da Abya Yala [Amerika]. Hargatik ari gara internazionalismo berri batez hitz

egiten, gu txikitzeke planek orain arteko internazionalismo guztiak gaingitu baitituzte. Mundu mailako potentziek, oligarkiek, transnationalek, egitura militarrek... internazionalismo guztiak gaingitu dituzte, baina, modu berean, jatorriko herriek ere gaingitu egiten ditugu mugak, oraindik bagarelako, erresistentzian eta borrokan. Oligarkiak alde batera, gu bestera, eta erdian zer? Europako herri ustez demokratikoen hiritarrak, ez arre ez iso egiten dutenak.

Gu sarraskitu nahi gaituztenen aldera egingo balute, “ez ditugu lagun!”, esango genuke, baina alde horretara jotzen ez dutenez, hitzarmenak egiteko aukera dagoela uste dugu. Hitzarmenak eginagatik ere, ordea, itunak ez dira behar bezala errotzen, ongintzan bezala ari delako hemengo jendea, elizan bezala... Zein da, bada, hitza?

Karitatea?

Horixe! Karitatea! Horixe da plana, karitatea, “behartsuei” laguntzea, “azpi-garatuei”, “hirugarren mundukoei”. Ez da pentsatzen “hirugarren mundukook” honako ere baliagarri diren modelo alternatiboak ditugula. Anbiguotasun horretan josita bizi da hemen jende asko. Baditugu lagunak, herri kideak, baina tartean bada jende asko anbiguotasunaren burbuilan sartuta, nora haize hara aise egiten duena, karitatearen izenean. Ez da erraza.

Kontzientzia garbitzeko balio digula esan nahi duzu?

Kontzientzia garbitzeko, eskuak garbitzeko... Supremazia ekintza da beti. “Niri ez zait gertatzen zuri gertatzen ari zai-zuna”, pentsatzen dute, baina oker dau-de, jakina gertatzen zaizuen. Sumintzekoa da gazteen esplotazioa hemengo lanean, sumintzekoa da belaunaldien arteko etena, harreman eza: eskolara eramaten dituzue haurrak, txikitatik, komunitatean bizitzeko aukerarik eman gabe; zaharrak egoitzetan sartzen dituzue, ez haurrak ez adinekoak zaintzen dituzuela, lanak galarazten dizuelako. Sistema da kulpak, sistema kakazu hau, komunitateak eta territorioak usteltzen ari dena. Eta ez duzue horretaz hitz egiten. Hiritarrak frustratuta bezala dau-de, baina frustrazio horretatik irteten asmatu gabe, problemaren jatorria non den ikusten ez duela.

Inoiz esan izan duzunez, Guatemalan, 36 urte iraun zuen gerra eta gero, bestelako gerra bat etorri da, jatorriko herriak suntsitzen segitzen duena. Megaturismoa, esate baterako.

Bere armak baititu megaturismoak. Besteak beste, horra non datorren turista, kamera eskuan, niri, zuri eta denoi argazkiak egiten. Horretan ari denak ez du bere egoa puztea beste helbururik. Neoliberalismoak horixe sartu dizue kaskoan, direlako herri “exotiko”

horietara –horrelaxe esaten baitiguzue, “exotiko”–, bidaiatzea. Baina ez zatotze bat, ez bi, jende olde handiak baizik. Eta, tartean, goi mailako turismoa, luxuzkoa. Estatuek jende horren dirua nahi dute, alemanak dira, edo estatubatuarrak, eta haien gogora antolatu behar da herrialdea: lekuak, jatekoak, errepideak... eta, azkenean, baita gure bizi eta gorputzak ere. Gu eskaparate batean jartzea besterik ez zaie falta, gu irribarrez, bisitariari agur eginez, gauzaki bihurtuta. Megaturismo horrek galarazi egiten du komunitate baitako harreman autonomia, librea.

Zer esan nahi duzu?

Parkean ere ezin garela jarri, bakean, atol [artozko edaria] bat hartzen ere, han etorriko baita jendetza eta hasiko zaizu klik! eta klik!, argazkiak egin eta egin. Paisajearen parte omen gara. Ni paisajearen parte naiz, beraz. Eta, sinistu, gero! Hegazkinak bata bestearen atzetik datoz, jende modu honetaz bete-beteak. Eta hegazkinak gutxi ez, eta berdin itsasontziak. Diru parrasta duen jendea da, gizateria bost axola zaiona, bere buruari atsegin ematea, gozaztea –sexualki nahiz dirua eralgiz–, gure biziaren kontura. Bada, ez! Salatu egiten dugu, bizi duina nahi dugu, gizakoiagoa, libreagoa, berdinen arteko harremanetan. Eta horrexen alde borrokatuko gara.

Bizi duina esan duzularik, emakumearen duintasuna duzu lehen borroka. Jatorriko herrietatik kanpotik datorkizue eraso, baina baita barrutik ere.

Egia da. Ez da zuzena, ez gure biziarentzat, ez gizateriarentzat ere, eraso horiek ikusezin izatea, erasoak inpunitatez

Gaztaroa

“Txikitatik naiz errebelde. Ezertara behartzen nindutelarik, zalantzan jartzen nuen. Eskolan nire hizkuntzan hitz egitea galarazten zidaten, haur ‘indio’-tzat tratatzen ninduten, zorritsu eta hankokerra. Gaztetan jabetu nintzen nire eskubideez, feminismoa ezagutu nuen, eta nire herriarekin batera hasi nintzen oinez, geure buruak berrosatzen”

Zor

Sarraskia, genozidioa, idokitzea, arpilatzea, eta emakumeen gorputzen kontrako nahi beste biolentzia... Entziklopedia bana osa liteke Lolita Chavezek kitxe komunitatearen egoera deskribatzeko ibiltzen duen hitz bakoitzarekin.

María Mies soziologoaren hitzak bere egin eta esan zigun Imanol Olabarria Bengoak oraintxe hilabete hemen bertan: “Gizon zuriak natura, hirugarren mundua eta emakumea esplotatzeari zor dio bere izatea”. Guk.

gauzatzea. Komunitateko batzarretan ez dugu horretaz gutxi hitz egiten. Bai, meategiak hor dira beti, erasoka, baina ez gaituzte bakarrik meategiek erasotzen, baita gure kideek ere, gizonezkoek. Hasteko, ohean bertan, bortxaz hartzen nauenean. Zer da orduan, etsaiaren konplize? Oligarkiaren bozeramaile? Zer pentsatu behar dugu, meategien kontra gogor ari den horixe, ohean joka ari bazazu? Zer?

Borroka bat bera zelakoan nengoen...

Egiten ari den borrokaren kontra ari da, hipokrita huts jokatzeko ari da, sexu bortxa da. Horixe gertatzen da emakumeak gizonari ezetz esaten dienean: “Gaur ez”. Gizonak ez du emakumearen ukoa errespetatzen, bere gorputzari satisfakzioa ematea besterik ez du buruan, bere kalentura apaltzea. Horrelaxe hasi ginen klitoriaren gainean hitz egiten, gizonari bost axola zaiolako gu nola gauden... Maia herriak badu esaera bat, “Zu nire beste alde zaitut”, hau da, “ni zu naiz, zu ni zara”, “gara”. Baina gure lagun askok ahaztua dute hori. Horregatik hasi ginen emakumeok hitz egiten botereari buruz, ohetik bertatik abiatu: goizeko lana, arratsaldekoa, komunitatekoa, eta iluntzean, atsedean hartu nahi duzunean, gizona zain, sexu harremanetarako. Eta bai edo ez, norberaren erabakia da, ez beste inorena. Horrez gainera, laneko rola, etxeko lanen banaketa... “Tortillak nahi ditugu, xigortuak eta bero-beroak!”. Ongi!, eta nork egingo ditu? Etxeko eskalan gertatzen dena, komunitatean ere gertatzen da. Horixe da errealitatea, eta horretaz ere ari gara komunitateko kontseilueta, horretaz ari gara komunitateko mugimendu feministetan. ■

Produktu EKOLOGIKOEN banatzaileak



"Cal Valls"



...

Bisitu gure webgunea: www.biotza.es

BIOTZA

banaketak.sl.

Putin irabazle Errusiako hauteskunde plebisztarioetan

Bazirudien Mendebaldean errusiar fobiak ez zuela jada hazkunderako tarte handiagoa, baina ez, telebis-ta piztu, egunkari edo liburu bat ireki, telesail edo film bat ikusi eta hortxe jarraitzen du hazkunderan. Egokitasun politikoa zaintzen duten hedabideek eta erakundeek arrazakeria eta xenofobia maiz kritikatzeko dituzten bitartean, errusiar-fobia sustatu egiten dute tamalgarria den jarrera xenofoboarekin. Horregatik maite dute Alexei Navalny.

Vladimir Putin nazionalista bezala aurkezten badigute ere, Errusia Batua eta Putinen jarraitzaileak dira Errusiaren ikuskera multinazionala sustatzen dutenak nazionalisten aurkako diskurtsoarekin. Oro har, Putin abertzalea da, baina ez nazionalista etnikoa. Nazionalista etnikoak eta muturrekoak Putinen aurkakoak dira. Navalny mendebaldar zalea eta neoliberala izateaz gain, nazionalista errusiar arrazista da. Betidanik, bere apustuak izan da etorkinen aurkako diskurtsoa.

Navalnyren jarraitzaileek uste dute Errusiak europar nazio bat izan behar duela, kateak moztuz bere egungo izaera multinazional eta euro-asiarrekin, asiarrak eta kaukasiarrak ez dituzte gogoko, ezta musulmanak ere. Errusia zuri eta europar batekin amesten dute. Badut lagun bat Navalnyren alderdikidea dena, eta oro har, berarekin hitz egitean progresista dirudi, nekazal gune eta probintzietako hiriburuak errusiarrei buruz mintzatzen hasten den arte. Ezjakinak eta atzeratuak direla dio. Azkenean, berotu ahala Moskuren independentzia eskatzen du. Funtsean pobreekiko mespretxua da. Gorroto hori areagotu egiten da etorkinei buruz hitz egiten hasten denean. Oraindik gogoan dut Parisera joan zenean bizitzera bidali zidan mezua: "Hau desastrea, Afrika ematen du".



Asier Blas Mendoza

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Putinek, Jeltsinek ez bezala, ez du iruzurren laguntza behar hauteskundeak erraz irabazteko. Gurean maiz pentsatzen denaren kontra, erregimen politiko baten legitimazio iturri nagusia ez dira bere prozedurak, emaitzak baizik. Erregimena izan demokratikoagoa edo autoritarioagoa, bere egonkortasuna eta legitimazioa batez ere emaitzen terminoetan neurtzen dituzte herritarrek

Zorionez Navalny eta haren jarraitzaileek duten babes txikia da oso. Moskun dira indartsuenak, baina urrun lehenengo indarra izatetik. Navalnyk ezin izan du lehiatu hauteskunde presidentzialetan kondenatua izan zelako iruzur fiskalagatik eta diru zuriketagatik. Halere, abstentziorako egin duen

deiak ez du arrakasta handirik lortu. 2012ko hauteskundeekin alderatuta partaidetza Errusian %2 igo da (orotara %68,5) eta Moskun %1,7 (orotara %59,86). Putinen babes hiriburuan ikaragarri zabaldu da, %70,88ra iritsiz.

Putinek inoiz hautagai presidentzial batek atera duen boto kopuru handiena atera du (56 milioi pasatxo) eta babes erlatibo handiena (%76,6). Sobietar Batasuna desagertu ostean Errusian ez dira egon hauteskunde presidentzial lehiakorak, beti izan dira plebisztarioak. Hau da, presidentek hauteskundeetan bere jardura politikoarekiko babes neurtzeko baino ez dute balio. Babes zabala lortuz gero presidentek bere ildo politikoa indartuko du eta babes estuagoa bada aldatzeko egingo ditu.

Putinek, Boris Jeltsinek ez bezala, ez du iruzurren laguntza behar hauteskundeak erraz irabazteko. Izan ere, gurean maiz pentsatzen denaren kontra, erregimen politiko baten legitimazio iturri nagusia ez dira bere prozedurak, emaitzak baizik. Erregimena izan demokratikoagoa edo autoritarioagoa, bere egonkortasuna eta legitimazioa batez ere emaitzen terminoetan neurtzen dituzte herritarrek. Putinek sekulako buelta eman dio 90eko hamarkadan Errusiak bizi zuen egoera tamalgarriari. Garpene ekonomikoa, egonkortasuna eta segurtasuna eskaini dizkie errusiarrei. Halere, hauteskunde estrategian garrantzitsua izan da azpimarratzea aberriak Mendebaldeko herrialdeen partetik eraso bat bizi duela. Horri aurre egiteko batasuna aldarrikatu du, horregatik, oraingoan independente bezala aurkeztu da "alderdikieretatik aldentzeko". Aberriaren aitaren irudi horrek baina, iraungitze-data du 2024an. Inork gutxi jartzen du zalantzan, Jeltsinek egin zuen bezala, berak ere izendatuko duela bere ondorengoa. ■

Eskolari so

Arrue ikerlerroak Lehen Hezkuntzako 4. mailako (LH4) eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako (DBH2) ikasleen unibertsoak ditu aztergai. Azken txostenak berri itxaropentsua eman digu euskarak duen bilakaeraz: “2011-2015 epealdian, ikasleen eskolako euskarazko erabileren joera orokorra goranzkoa izan da, bi ikasmailetan. Eskolako erabilera orokorrak, LH4n 3,0 puntu egin du gora eta DBH2n 2,4”. Horrez gain, ikerketak erakusten du hiru direla eskolako erabilera orokorrarekin lotura estua duten eremu nagusiak: familiakoa, gizarte hurbilekoa eta eskolakoa.

Familia izan ohi da gotorlekurik sendoena hizkuntza ororen transmisiorako. Eremu horretan, lehen hizkuntza euskara soilik edo gaztelaniarekin batera duten ikasleen proportzioa gorantz doa LH4ko ikasleengan. Joera horrekin bat, ikasleen etxeko erabileran ere hazkundera dago, bi ikasmailetan.

Eskolako hizkuntza-baldintzetan ere badago zenbait zantzu positibo: D hizkuntza ereduiko ikasleen proportzioa hedatu da bi ikasmailetan, 2011tik 2015era bitartean. Bestetik, irakasleen arteko hizkuntza erabilera LH4n berdin mantentzen bada ere, DBH2n gorantz doa.



Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA
@imartinezdeluna

Badaude, LH4n, datu ilun xamar batzuk ere: D ereduiko ikasleen proportzioa hazi den arren, irakasleen arteko euskararen erabilera ez da igo lau urtean

Ikasleek euskara gehiago erabiltzearen bultzatzaile nagusiak familia eta eskola eremuetako aurrerapausoak izango dira, bereziki D ikasteredua zabaldu izana.

Gainerako eremutan ez da joera garbirik antzematen. Batetik, eskolaz kanpoko ekintzak, klase partikularrak

eta udaleku eta kanpamenduak batera aztertuta, bilakaera ezberdina izan du euskarak: LH4n jaitsi da eta DBH2n igo. Bestetik, udalerrietako euskaldunen proportzioa (eremu soziolinguistikoa) ez da lau urtean ia mugitu. Azkenik, hedabideen eta kultura-kontsumoan euskararen presentzia igo da lehen hezkuntzan eta jaitsi bigarrenengan. Emaitza horiek bilakaera nahasia erakusten dute, eta zaila da pentsatzea eskolan atzemandako euskararen igoerari ekarpen handirik egin diotenik.

Badaude, LH4n, datu ilun xamar batzuk ere: D ereduiko ikasleen proportzioa hazi den arren, irakasleen arteko euskararen erabilera ez da igo lau urtean eta, gainera, irakasleekin gelatik kanpo euskaraz egiten duten ikasleen proportzioa 2,2 puntu jaitsi da, 2013tik 2015era.

Zergatik LH4n ez da ugaritu, marko euskaldunagoa eskaintzen duen D eredu hedatzearen poderioz, irakasleen beraien edota ikasle/irakasleen arteko erabilera? Zerk galgatzen du eskolaren ekarpena? Ikasleen egoera soziolinguistikoa eta euskarazko komunikabide eta kultura kontsumoan atzemandako geldialdia ez ezik, badago eskolaz kanpo beste traba ugari. Eskolari ez ezik, gizarteari ere egin behar zaio so. ■

 **ARGIA**

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

Teknologiaren argi-ilunak



Inma Errea
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA
@inmaerrea

Gizonak –70 bat urteko erretiroduna edo– udako apartamentuko elektrizitate-tarifa aldatu nahi zuen. Langileak adeitsu azaldu zion izan bazutela horretarako tarifa egokia. Hasi ziren tramiteekin, eta langileak helbide elektronikoa eskatu zion. Gizonak harridura-keinu bat egin zuen: “Ez daukat”. Ozenki esan zuen, zain ginenok entzuteko beste. Langileak irribarretsua erantzun zion: “Benetan?”. Ordurako, irriak eta zurrumurruak hedatuak ziren bulegoan.

Sentipen berezi bat jabetu zen nitaz. Arraroa zirudien, harritzekoa, garaiotan posta elektronik gabe bizitzeak. Halako tresnarik ez edukitzea, bestalde, oztopo bilakatzen ari zen gauza arrunt bat egiteko –elektrizitate-tarifa aldatzeko–. Baina, aldi berean, inbidia puntu bat igarri nuen nire (gure?) baitan: nolakoa izanen zen bizitza azken urteotako baliabide teknologikoen mende egon gabe?

Informatikak eta bestelako aurreramenak teknologikoen gauza asko erraztu dizkigute gizakioi –ez guztiei, ordea!–. Baina abantailekin batera mendetasun batzuk ere ekarri dizkigute: ezin gara bizi mugikorrik edo posta elektronikorik gabe, eta etengabe beraiei begira erne eta adi egotera behartzen gaituzte halakoek.

Enpresa pribatuek eta administrazio publikoek ere norabide berean bultzatzen dute: legeek

eskubide gisa aurkezten digute komunikazio eta izapideetan aurreramenak teknologikoen baliabidea, baina poliki-poliki betebeharrak bilakatzen ari da hasieran aukera zena.

Eta sare sozialen papera ere erabakigarria bihurtzen ari da demokraziari dagokionez: sare sozialek demokraziaren alde jokatu dute, eta jokatzen ari dira, munduan, baina, hain zuzen haien ahalmen demokratikoagatik, gero eta handiagoa da kontrol unibertsalaren arriskua.

Xavier Sala i Martín ekonomialari katalanak ez die muzin egiten berrikuntza teknologikoei. Aurkeztu berri duen *La invasión dels robots i altres relats d'Economia en colors* liburuaren harira dio saihestezinak direla berrikuntzak, eta hala onartu behar dugula. Baina aitortzen du berrikuntzak gero eta azkarrago doazela, eta badela berrikuntzek beraiek eta haien abiadura lasterrak kaltetutako jendea. Sala i Martín ez da ezkerreko ekintzaile bat –Columbiako Unibertsitateko irakaslea amerikartua Davoseko bilkuretarako gonbidatzen dute beti–, baina dio beharrezkoa dela mekanismoak sortzea haren hitzetan berrikuntzek beraiekin berez dakarten “suntsipen sortzaileak” kaltetutakoei aurrera egiten laguntzeko. Eta bi arrazoiengatik egin behar dela: etikagatik eta... egoismoagatik!

Hasieran aipatu dudan gizonak alabaren helbidea eman zuen elektrizitate-tarifa aldatzeko... ■

Familiabakoak



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Galdera batek zurtuta laga ninduen ETBko *Ur Handitan* saioan. Xabier Madariagak Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizuri egin-dako honexek: Familiarik ez baldin baduzu uste duzu dela musikaren erruagatik?

Familiarik ez zeukala esan zion, aurretik haren arreba elkarrizketatu arren. Eragindako harriduraren ostean, gure amamaren sasoiako andreak etorri zitzaizkidan burura, halaxe galdetzen zuten-eta seme-alaben kontuaz.

Zaharmindu usaina hartu nion itaunari, badi-rudielako umerik ekarri ezean, ez dugula familiarik. Alferrik da gogoratzea guraso, neba-arreba, ilobak edota koinatuak izan genitzakeela, buru

horietan familiabakoak izango gara beti kumerik ez dugunok.

Jakina, ezin aitatuko diegu lagun eta bizikide batzuk ere senideak bezain familiako direna guretako. Bizitzako trantzeak pasatzen, eta aurrera egiten laguntzen diguten pertsona begiko horiek ez dira odoleko familiakoak, ez dugu DNArrik konpartitzen, baina bizipenak, pozak eta tristurak elkar banatu ditugu, bidea arinago egiteko asmotan. Aukeratutako gure familia dira, bestea bezain garrantzitsua.

Seme-alabak munduratu izanak ez duelako kategoria handiagoa ematen, ezta estatus altuagoa ere. Sendia modu askotakoa izan litekeelako, hain zuzen ere. ■

Berri faltsuen legea

Teknologia berriek mundua itxuraldatu dute. Orain dela kasik hogeit urte liluraturik geunden eskura genituen informazio iturriak ikusiz, zenbat ikasten ahal genuen bat-batean, zein indar gutxirekin ikasgaien esku-ratzeko eta zenbat informazio iturri independente eta anitzetarako heldulekua genuen. Orain jada bahea jartzen ez dakienari, on eta txarraren bereizten ez dakienari, itolarri sentsazioak gaina har diezaioke.

Kezkatuko gara agian belaunaldi gazteen etorkizunaz, zeinen ezaugarrietarik bat baita sineskorra izatea; bizkitartean egiteko molde egokien ikasteko eta barneratzeko ere gai dira. Hori frogatu zuen duela zenbait aste irakasle batek. Sarean partekatu zuen ikastaldean burutu programaren berri, aipatuz xeheki erabili teknika, materiala, hauek denen eskura jarritz eta azpimarratuz belaunaldi gazteek, laster batean, ikuspegi eta jokamolde kritikoa gara dezaketela datu uholdeari buru egiteko. Tarte luzea eskaini zion *fakenews* (berri faltsuak) delakoak atzemateari, oinarritzko printzipioen bitartez: argazkien, datuen edo artikuluen publikatze data zaintzea, iturria identifikatzea, beste iturri batzuekin kontrastatzea eta batez ere pazientzia ukaitea gertakarien konfirmazioa goaitatzeko. Hots, irakatsi die erranak oro ez sinesten.

Heziketaren hautua egiten dute batzuek eta besteek beste hautu mota batzuk.


Ondoko asteetan Emmanuel Macronek bultzaturik eztabaidara doa legebiltzarrerara *Berri faltsuen legea* deitua. Memoria ona dugunez, ontsa oroitzen gara presidentzialetarako kanpainaren baitan Macronek berak –eta beste anitzek– “arazoak” ukan zituela #macronleaks gisa ezaguna denarekin besteak beste: hala nola *offshore* zuela dirua, amerikar agentea zela bankuen lobbyen



Bea Salaberri

IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

zerbitzuko eta nik dakit eta zer gehiago. Bistan dena, konspirazioa salatu zuen, errusiarren esku sartzea eta gutarik batzuen erruduntasuna plazerekin zabaldu genuelako zurrumurrua sarean gaindi eta ostiraletako aperitifetan. Ke anitz baina surik ez? Geroztik Eliseo jauregira doazen kazetariak zorrozki hautatuak dira, menekoak ez direnak baztertuak.

Tira, laster konponduko da. Frantziako Legebiltzarrean aipatuko den legeak, Alemanian berriki plantan ezarri “edukien gidatzea” baino anitzez urrunago joanez, ahalbidetuko baitu zabalduko diren informazioen kontrol zorrotza egitea –momentukoz bakarrik hauteskunde garaian, ez dezaten argitaratu eskandaluek eragin emaitzetan-. Onartuko balitz, legeak aurreikusiak ditu internet hornitzaileen eta sare sozialen derrigorrezko kooperazioak, salaketa dispositibo lasterra, atzerriko komunikabideen blokeatzea Estatu “mehatxaturik” balitz, webgune eta kontuak zerratzeta. Horretarako epaile bat luke espresuki. Gure libertateen segurtatzeko, omen. Estatuari eskubideen zaintzea galdegiten zaio, orain arte hain gutxi egiten duena. Askatasunak ez du Estatuaren begiradarik behar. Askatasunak behar du heziketa.

Lehendakari ezin hunkituaren figura, kontzientzien eta libertateen kontrola, salaketa, kolaborazio behartua, ez bagenekiki Macronek erregimenean garena, pentsa genezake Petain-ekin gaudela oraino.

Baliteke lege hau gehiengo isil baina handiarekin bozka dadin eta hortik goiti, adituen iritziz 1881eko prentsa-ren independentziaren legearen kontra doanak, salbuespenetik iraunkortasunera gutxi falta luke, urgentzia egoeraren antzera.

Uste baino fiteago honaino hel daki-guke *Vichy*ki ontsa bizitzea. ■

APIRILAK

14

22:00

PAGOA

kafe antzokia

OIARTZUN

KASOMAI

kaskezur VOLTAINA RODEO

SARRERAK

A: 6€

T: 8€

OIARTZUN

ELORSORO

PAGOA

DONOSTIA

DONOSTI ROCK

ERRETERIA

ARKAITZA TABERNA

ONLINE

TICKETEA

COLECTIVA

MAUKA

KUTXABANK

berria

ARGIA

an⁷a
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



PAGO A®
EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA

WWW.PAGOA.EUS • PAGOALDEA 7, 20180 OIARTZUN • TEL. 619 421 153

PENTSIO DUINA

DENON LANAK, DENON ESKUBIDEA

Euskal Herriko pentsionistak kalera irten dira pentsio duinak aldarrikatzera. Bosgarren urtez jarraian, Hego Euskal Herriko erretirodun eta alargunek %0,25eko igoera jasoko dute beren ordainsarietan. Gutxieneko pentsioa 1.080 euroan jartzearen beharra azpimarratu dute, pentsiodun askok –nagusiki 65 urtetik gorako emakumeek– bizi duten pobrezia egoera salatuz.



Igor Agirre

@igoragirre

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

2018. urtean pentsioek izango duten igoera iragarri du Espainiako Gobernuak urtea hastearekin batera. Zehazki, erretirodunen eta alargunen ordainsariak %0,25eko igoera izatea aurreikusi du Madrilgo Gobernuak eta honek sekulako arrakala sortu du gizarteko sektore geroz eta zabalago honetan. Hala ere, haserrea eta ezinegona ez da soilik pentsionistengan piztu; gobernuaren neurriak ordainsariaren igoera eskasaz aparteko arazoak ere azaleratu dituzte eta pentsio sistema bera auzitan jartzen ari dira gizarteko eragile ugari.

Abenduko datuei erreparatuz gero, 636.000 lagunek jasotzen dute pentsioa Hego Euskal Herrian. Horietatik ia %70ak kotizatutakoaren arabera ordainsaria jasotzen du; 165.000 pertsonak alargun egoteagatik dute pentsioa; eta beste 54.000k elbarritasunagatik. Denera, Hego Euskal Herriko biztanleriaren ia laurdena da pentsioduna.

Mariano Rajoyren gobernuak iragarritako pentsioen igoera legeak ezartzen duen gutxienekoa da, 0,25 puntukoa, eta bosgarren urtez jarraian ezarriko dute. Beraz, Hegoaldeko batez beste pentsioa 1.134 eurokoa dela kon-

tuan izanik, 2,83 euroko igoera izango du 2018an. KPIa (Kontsumoko Prezioen Indizea) %1,2ren bueltan dagoenez, pentsiodunek erosahalmena galduko dute 2018an, beste behin. Ipar Euskal Herrian ere erosahalmena galdu dutela salatzen ari dira pentsionistak. Gizarte Zerga Orokorra –CSG delakoa– ere igo die eta Emmanuel Macronen gobernuak pentsio sistemari egin nahi dizkion erreformen aurrean, herritarrek kalera ateratu dira. 2014. urtetik daude izoztuta pentsioak Frantziako Estatuan.

Espainiako Estatuko egoeraren gordintasunak baina, erretirodunen eta pentsiodunen eskubideen aldeko elkarrekin batera mobilizatzea lortu du. Hiriburuetan manifestazio oso jendetsuak egin dituzte, eta orain arte itzaleko lan ikusezinak egin dituzten emakumeen egoera ere aldarrikapenaren erdigunera eramanez, eurak baitira okerren daudenak.

Demokraziaren Aldeko Bizkaiko Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteko (AJPD) Jose Luis Ruizek jendearen artean ezinegona nabari zela dio baina ez zuen imajinatu ere egiten kalean bistaratu den mugimendua: “Nire ustez pen-

tsiodunak beldurtuta egon dira. Krisiarekin jendeak lana galtzen zuela ikusten zuten eta askok seme-alabei lagundu behar izan die ekonomikoki. Ez genduke ahaztu behar orain 70 urte ditugunok kalera askotan irten behar izan genuela gaztetan”. Horri eusten dio Duintasuna elkarteko Iñaki Elduaiek ere: “Gure belaunaldiak molde eta modu desberdinetan borrokatu du; duela 40 urte kaletan ginenak gara”.

Gutxieneko ordainsaria, 65 urtetik gorako emakumeek

Europako Gutun Sozialak gomendatzen duenari jarraiki, gutxieneko pentsioa 1.080 euroan finkatzeko aldarrikatzen ari dira pentsiodunak. Zifra horretan oinarrituz, Euskal Herriko pentsiodunen plataformak herri-ekimen legegilea aurkeztu zuen Gasteizko legebiltzarrean 2016an. Ekimenak pentsio baxuenak bestelako laguntzekin osatzea eskatzen zuen, 1.080 eurora iritsi arte, baina EAJ, PSE eta PPren aurkako bozekin proposamenak ez zuen aurrera egin.

AJPD elkartekoen arabera zifra horrek aldarrikapen forma hartu duen arren, beharrezkoa ikusten dute justua izango



den erreferentzia bat izatea. Gipuzkoako Erretirodun eta Pentsionisten elkarteko Joxe Agustin Arrieta duintasunaz mintzo da gutxieneko pentsioa aipatzean: “Nik ez dakit kopuruak zein izan behar duen, baina pentsio minimoak hazi egin behar du; duina izan behar du jasotzen dugun horrek”. Duintasuna Elkarteko Maria Luisa Lizartzak argi du mila euro baino gutxiagoko pentsioek ez dutela bermatzen bizi-kalitate egokia pentsiodunen artean: “1.000 eurotik beherako pentsioa pobrezia da, ezinbestekoa da minimo duin bat jartzea”.

Gaur egun, EAEn milaka pentsionistek Diru Sarrera Bermatzeko Errenta jasotzen dute beren pentsioa duintze aldera. Izan ere, Espainiako Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuek diotenez, erkidegoko pentsiodunen %25ak gutxieneko pentsioa (637,7 euro) jaso du 2017an, %28ak Nafarroan. Beren pentsioa osatzeko, DSBEda baliatu behar izaten dute askok eta horren adibide da errenta hori jasotzen dutenen multzo handiena 65 urtetik gorakoena dela: adineko 10.000 lagunek erabiltzen dute.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen duten 65 urtetik gorakoaren artean emakumeak dira gehienak: hamarretik zortzi. Hemen ere, emakumeak dira desabantaila handiena dutenak. EAEn gutxieneko pentsioa jasotzen duten emakumeen kopurua gizonezkoen hirukoitza da, eta 2017an UGT sindikatuak eginiko ikerketa batek azaleratu zuenez Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako emakumeen eta gizonezkoen pentsioen arteko batez besteko aldea ia %45koa da: gizonezkoek batez beste 1.518,85 euroko pentsioa eskuratu zuten bitartean, emakumeek 837,84 euro jaso zituzten. Ordainsari horiek, jakina, ez dute kontuan izaten ezkutuko ekonomian, etxean eta zaintzan egindako lana, eta emakume askok iraganean kotizatzeo garaian izan dituzten traba eta zailtasunen erakusgarri dira.

Emakume eta gizonezkoen arteko arrakalari buruz hitz egitean, Arabako Pentsionistak Lanean taldeko Armando Aulestiartek alargunek duten egoera larria dakar gogora: “DSBEa jasotzen duten 20.000 pentsiodunen artean gehienak emakume alargunak dira, beraien jasotzen dituzte pentsio baxuek”. Nekane Berriotxoa Duintasunako partaidea da eta kezkatuta dago emakume alargunen egoerarekin: “Alargunen

egoera oso txarra da. Bikotekidearen pentsioaren %52 besterik ez zaio geratzen alargunari eta erabat etxean lan egin duenak oso pentsio baxua jasotzen du. Pobrezian geratzen dira alargun asko eta asko”.

Pentsioen gatazkak badu politikotik

AJPD elkartearen ustetan, momentu honetan pentsio sistemak duen erronka handiena justua eta iraunkorra izatea da. Elkarteko Jose Luis Ruizek dio pentsioen arazoa zentzu politikoan aztertu behar dela, ez ekonomikoan: “Diotenez arazoa pentsioen funtsak jasotzen duena baino gehiago ordaintzen duela da; hori ez da arazoa, egoerari atzekoz aurrera begiratzea baizik. Lehenik eta behin, adineko pertsonak bizitza duina izateko zer behar duten finkatu beharko genuke eta ondoren, hori nola finantzatu erabaki beharko litzateke”.

Arazoa termino politikoetan kokatzen du Miren Etxezarreta ekonomia adituak ere. 1995era arte, pentsioen kutxa Espainiako Estatuko aurrekontuaren barruan zegoen eta hori aldatzea ere erabaki politikoa izan zen bere ustez: “Hainbat urtetan zehar irabaziak izan ziren pentsioen kutxan eta beste hainbat arlo finantzatzera ere bideratu zen horko dirua. Orain, kutxak defizita duenean, berriro ere pentsioen poltsa estatuko aurrekontuekin lotzea besterik ez da egin behar; azkenean, gastu sozial bat da pentsioena”. Izan ere, inbertsio sozial guztiak zergen bidez finantzatzen dira Espainiako Estatuan, pentsioen kasuan izan ezik.

Horren aurrean, PSOEek bi zerga berri sortzeko proposamena luzatu du urtarrilean. Sozialistek bankuei eta finantza transakzioei eragingo lioketen bi zerga sortzeko ideia proposatu dute pentsioak finantzatzeko asmoz. Miren Etxezarretaren aburuz pentsio sistemak ez du zerga berri baten beharrik, nahikoa izango litzateke dirua beste era batera banatzea: “Langile aktiboek ekarpenarekin bakarrik finantzatzen dira pentsioak. Horrek esan nahi du Estatuko gainerako aberastasunek, kapitalaren irabaziek bereziki, ez dutela ezer laguntzen adinekoen mantenuan. Pentsioak ordaintzeko falta dena zergetatik jasotzen denarekin ez berdintzea erabaki politikoa da”. Aintzat hartzekoa ere bada Espainiako Estatuan 3.751 eurokoa dela kotizatu daitekeen gehieneko soldata;



hori baino gehiago irabazten duenak zifra horretaraino bakarrik kotizatzen du gaur egungo sisteman.

Eta pentsioak Euskal Herrian kudeatuko bagenitu?

Euskal Herritik pentsio sistema propioaren aldeko aldarrikapenak geroz eta oihartzun handiagoa du pentsiodunen artean. “Hau baldin bada gobernu zentralaren lan egiteko modua, Nafarroak bere pentsioak kudeatu nahi ditu”, esan du Uxue Barkos foru erkidegoko presidentek. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ere eztabaida piztu da. 1979ko Gernikako Estatutuak biltzen du Gizarte Segurantzaren eskumena baina ia 40 urteren ondoren, Eusko Jaurlaritzari transferitu gabe dago ahalmen hori. La-kuak behin eta berriz adierazi du EAEko estatutua osorik betetzeak duen garrantzia eta Gizarte Segurantzaren transferentziarena lehentasunen artean dute. Alta, Jaurlaritzaren asmoa ez da pentsio



sistema propioa garatzea eskumen hori lortutakoan. PSEko Maria Jesús San José Lan sailburuak pentsioen kutxa bateratua zatitzeko asmorik ez dutela adierazi izan du orain arte. Iñigo Urkulluren gobernuaren asmoa eskuduntza hori lortu eta Espainiako sistema “indartzea” da.

Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia sailburu Pedro Azpiazuren ustez Gernikako Estatutuak baldin badio Gizarte Segurantza Gasteizko gobernuaren kompetentzia dela, eskumen horren transferentzia bete egin behar da. Bere esanetan, Jaurlaritzak pentsioak bildu eta ordaintzeko ahalmena balu, gainerrako gizarte politika baliabideekin koordinatzea erraztuko luke. “Gizarte Segurantza guk kudeatzeak gauzak hobeto egitea ekarriko luke”, Azpiazuren arabera.

Ildo beretik dihardu Gipuzkoako Pentsionisten elkarteak Joxe Agustin Arrietak. Gizarte Segurantza Eusko Jaurlaritzak kudeatzearen garrantzian egiten

Martxoaren 17an dozenaka milaka lagun irten ziren kalera, horietako asko euren lana kotizatzeke zailtasun gehiago izan duten emakumeak zein gazte prekarioak, pentsio sistema duin baten alde. Irudian, Donostiako manifestazioaren hasiera; pentsiodunek mobilizazioekin segiko dutela iragarri dute.

du azpimarra eta orain arte EAEko gobernuak izan dituen hainbat eskuduntzaren kudeaketarekin konparatzen du: “Azken 35 urte hauetan, Jaurlaritzak izan dituen eskumenak ondo kudeatu ditu nire ustez eta horrek onurak ekarri dizkio gure gizarteko ongizateari. Madrilek beharrean, gure zergen bidez jasotako dirua guk kudeatzea garrantzitsua da”.

Oraindik harago, ez dira gutxi pentsioen erabateko kontrola edukitzearen alde dauden eragile politiko eta sozialak. Duintasuna elkarrekin, esaterako, euskal pentsio sistema propioa sortzea

aldarrikatzen du. Hego Euskal Herriko pentsio sistema kudeatzerakoan, Espainiako Estatuarekin parez pareko harremana izatea jotzen du helburutzat Iñaki Elduainenek: “Gernikako Estatutuak ez du bermatzen pentsio funts propioa izateko aukera. Interesgarria izan daiteke estatutuari aitortzen zaion eskuduntza lortzea, baina Eusko Jaurlaritzaren azken helburua izan beharko luke erabateko eskumena izatea”.

Izan ere, askorentzat kotizazioen eta pentsioen kaxaren kontrolak Estatuaren menpe jarraituz gero, Gizarte Segurantza “leihatila hutsa” baizik ez litzateke izango –ELA sindikatuaren hitzak erabiliz-. Ekonomisten Euskal Kolegioak 2017an egindako inkesta baten arabera, euskal ekonomialari gehienek uste dute pentsio sistema propioa egitea “bideragarria” dela. Aitzitik, sindikatuek soldata arrakalaren amaierarekin eta kalitatezko enpleguarekin lotu dute pentsio duinak eskainiko litzuzkeen



1.080 euroko gutxieneko ordainsaria Europako Gutun Sozialak gomendatzen duenari jarraituz kalkulatu dute pentsionistek. EAEn 71.724 sinadura lortu dituzte berme langa hori jartzeko eta Nafarroan 7.306; bateko zein besteko parlamentuetan herri ekimen legegileak aurkeztu dituzte, baina atzera bota dituzte.

balizko sistema hori; eta halakorik ez den bitartean, behinik behin gutxieneko pentsioak konpentsatzeko funts bat sortzea proposatu dio Eusko Jaurlaritzari LABek.

AJPDk, aldiz, ez du EAEn Espainiako Estatutik independente izango den Gizarte Segurantzaren alde egiten; hala ere, estatutuak ahalbidetzen duen kudeaketa ekonomikoa transferitu behar dela uste dute. Jose Luis Ruizek arabera, “jende gehiagoren ekarpena” jasotzen duten sistemen alde daude: “Orduan eta jende gehiagok parte hartu, sendoagoak dira gisa honetako banaketa sistemak. Nahiko genuke Europa mailako sistema bat egotea, horrek gorabehera demografikoei aurre hobe egiteko aukera ekarriko bailuke”.

Sistemaren izaera ere auzitan

Madrilgo gobernuaren diskurtsoak arlo ekonomikoan kokatzen du pentsioen gatazka. Mariano Rajoyk Espainiako Estatuan pentsio publikoak bermatuta daudela baieztatzen duen bitartean, pentsio plan pribatuak sustatzearen aldeko jarrera azaldu du egoera aztertzerakoan.

Duintasuna elkarteko Maria Luisa Lizartzak ez du bideragarri ikusten pentsio plan pribatuen aldeko apustua, langileek dituzten soldatek horretarako aukerarik ematen ez dutela argudiatzen du: “Justu-justu bizitzeko adinako sol-

» NEKANE BERRIOTXOA (DUINTASUNA):

“Alargunen egoera oso txarra da. Bikotekidearen pentsioaren %52 besterik ez zaio geratzen alargunari eta erabat etxean lan egin duenak oso pentsio baxua jasotzen du. Pobrezia geratzen dira asko eta asko”

» JOSE LUIS RUIZ (BIZKAIKO AJPD):

“Diotenez, arazoa da pentsioen funtsak jasotzen duena baino gehiago ordaintzen duela; hori ez da arazoa, egoerari atzekoz aurrera begiratzea baizik. Lehenik eta behin, adinekoek bizitza duina izateko zer behar duten finkatu beharko genuke”

data dutenek nola bideratuko dute beren hileroko soldataren zati bat pentsio plan batera? Hori bankuek nahi dutena da, beren negozioa da”. AJPDko Jose Luis Ruizek pentsio pribatuak izan beharreko izaeraren inguruan egiten du gogoeta: “Jendeak jaso beharrekoak publikoa izan beharko luke, duina. Gobernuak nahi duenaren kontra, pentsio pribatuak ia-ia produktu marjinala izan beharko lukete gure artean”.

Estatuak dituen bestelako kostuetatik pentsioak bereiztearen arrazoiak finantza entitateek plan pribatuetan dituzten interesak dira Miren Etxezarreta ekonomialariaren ustez. Espainiako Estatuan urtean 110.000 milioi euro inguru ordaintzen dira pentsioetan eta finantza entitateek diru hori erabili nahi dutela susmatzen du ekonomialariak. Hala ere, pentsioak pribatizatzearen aldeko korronte hau Espainiaz gaindiko estrategia batean kokatzen du: “Finantza krisia iritsi baino lehenago, 1994tik, pentsio publikoak apalagoak izan eta ahal duenak plan pribatuak egin behar dituela dioten dokumentuak osatzen ari da Munduko Bankua”.

Orain arteko eredia eraldatuko duen pentsio sistema aldarrikatzeko kaleak betetzen jarraituko dutela agindu dute pentsiodunen plataformek. Argi dute zein den aurrean duten borrokaren helburua: publikoa, duina eta justua izango den pentsio sistema berria. ■



BIZKAIA

irratia

Bizkaitik
bizkaira
bizkaieraz

2018

Fm: 102,6

www.bizkaiairratia.eus

94 446 68 00

*Rafael Balago zutik eta
João Paulo Brito eserita.
Mural Agentziako
kazetariak lortzen dute
kazetaritzaren bidez
Sao Pauloko auzoetan
eragitea.*

LANDER ARBELAITZ

Mural agentzia

Sao Pauloko periferietatik kronika burujabeak

João Paulo Brito eta Rafael Balago 1988an jaioak dira Sao Paulon. 12 milioi lagun bizi dira Brasilgo hiri erraldoi horretan eta argi dute hedabide nagusiek ez dutela hiri osoan gertatzen dena jasotzen, ezta gutxiago ere. Periferiak informatiboki zein modu estereotipatuan jorratzen zituzten ikustiaz nazkatuta, auzo hauetako kazetari gazteen sarea osatzeari ekin zioten. Emaita: Mural Agentzia. Bakea eta Duintasuna elkarrekin Euskal Herrira ekarrita, proiektua ezagutzeko aukera izan dugu.



Lander Arbelaiz Mitxelena
@larbelaiz

Nola sortu zen *Mural* eta zertarako?

Rafael Balago: Bruno Garcés izeneko kazetariak bloga ireki zuen Sao Pauloko periferiei buruz hitz egiteko. Berak zioen, askotan idazten zuela atzerriko herrialdeez, baina gero, ez zuela bertako auzo askori buruz sekula idatzi, eta leku horiez, beti oso albiste txarrak ematen zituztela hedabideek. Hilketak, biolentzia... estereotipoak jaun eta jabe. Pixkana gorputza hartzen joan zen eta formazioa ematen hasi zen periferian bizi ziren gazteei, beraiek informa zezaten bizi ziren lekuan gertatzen ziren gauzez. Ordutik, blog hori berri agentzia bilakatu da.

João Paulo Brito: Sao Pauloko periferiak aipatzen ditugunean, hitz egiten ari gara zentrotik urrun dauden auzoez. Askok ez dute ez zinema, antzoki eta oinarritzko prestazio publikorik. Erdi-gunera joateko autobusa hartu eta bizpahiru ordu behar dira leku hauetatik, batzuetan gehiago. Hedabideetan nagusi diren klase ertaineko kazetariak

ez dituzte ezagutzen periferiak. Ez dute ezagutzen errealitate hau eta ez dute pertsonen bizitzaz idazten, dagoen aktibitate kulturalaz. Beti hitz egiten dute bandidoez edo hiltzaileez, pertsona txi-roen kriminalizazioa izugarria da. *Mural* agentzia aitzindaria da, auzo hauek periodistakoki modu positiboan jorratuz. Eredugarri ikusten gaituzte askok, masa hedabideek auzo hauek jorratu behar lituzketen modua praktikan jartzen dugulako.

Zer nolako kazetaritza egiten duzue?

J.P. Brito: *Mural* agentziaren DNAn darabagu ez dugula beste hedabideek egiten dutena erreproduzitu nahi. Ez dugu soilik jende txi-roaren arazoez hitz egiten. Enpatizatzen saiatzen gara, irakurtzea merezi duten historia ederrak bilatzen edo, proiektu interesgarriei buruzko albisteak jorratzen ditugu. Sao Paulon kultur-leherketa handia bizi dugu azken urteotan: ekimen asko egiten dira, zinema herrikoiak, kontzer-

tuak eta abar. *Mural* agentziatik hau jorratzen dugu, herritarrei errealitate hau hurbiltzeko. Hemen bizitza dago, adi egon behar duzu, gauza interesgarriak daude.

Periferia hitza zuen proiektuan ardatza da.

J.P. Brito: Ez dakit ongi gauzak nola diren hemen Euskal Herrian. Sao Pauloz ari garenean, jendeak lanera joateko orduak egiten ditu garraioan. Badaude favelak, baita auzo egituratuagoak ere, baina funtsean hiri txikiak dira beste erraldoi baten barnean. Milioika pertsona horien multzoan, auzoek berezko dinamika dituzte, eta batzuek adibidez, Bilboren tamaina dute. Eremua handia eta oso ezberdina da. Hedabide handiek oso modu ezberdinean kontatzen dituzte erdigunean bizi baldintza hobea goekin bizi direnen albisteak, eta periferian gauden milioika pertsonaren bizitzak.

R. Balago: Hiriko kazetari gehienak Sao Paulo erdialdeko koadrilateroan bizi



dira, han egiten dute lan, eta kanpoaldeko auzo batera joateko kazetariak bi edo hiru ordu behar ditu autoan, lan egin eta itzuli beste horrenbeste ordu igaroz errepidean. Ez dira heltzen istorio haue-tara gu heltzen garen bezala, gu han bertan baikaude. Nik askotan ikusi dut kazetari bati elkarrizketa interesgarri bat eskaini eta balizko elkarriketatua urrun bizi delako kazetariak uko egitea. Erredakzioetan askotan gertatzen da.

Zein da errealtate mediatikoa Sao Paulon?

R. Balago: Batzuek egunkariak erosten dituzten arren, periferietan informazio iturri nagusia telebista da. Pozik gaude ikusi izan dugulako guk argitaratutako informazioek batzuetan eragiten dutela telebista kate handiek ondoren gai horiek jorratzea. Kontaktuak eskatzen dizkigute batzuetan.

J.P. Brito: Aipagarria da guk artikulu batzuk idatzi izan ditugunean auzoren bateko beharrei buruz, handik gutxira, udaletxeko langileak joaten direla konpontekak egitera. Arazo horiek beste hedabideek ez zituzten aipatzen, eta beraz, gurea presio moduko bat ere bada.

Zenbat kolaboratzaile dituzue eta nola egin duzue sarea?

R. Balago: Iaz 58 lagunek idatzi zuten zerbait *Muralen*, egun 80 bat gara. Kontutan hartu behar da denbora librean egiten den lana dela, eta denok beste lanpostu bat dugula. Urtean behin bil-tzen gara denok, proiektuaz hitz egiteko.

» RAFAEL BALAGO:

“Auzoetan deialdiak egin, webgunean jorratutako materiala inprimatuta eraman eta kaleko paretetan itsasten hasi ginen jendeak irakur zezan”

J.P. Brito: Orain gutxi arte ez zen ohikoa gazte txiroak unibertsitatera joatea. Lula da Silvaren bultzatako programa sozia-lei esker, aldaketa handia bizi izan dugu Brasil-en. Beka ugari sortu zituzten eta gu biok, adibidez, beka hauei esker unibertsitatera joan ginen. Gure fami-lietan unibertsitate ikasketak dituzten lehenak gara. *Mural* agentziak honi ere erantzuten dio. Unibertsitatera helduta-ko gazteok, uneren batean gu bezalako gazteek osatutako agentzia bat baze-la jakin genuen, gu bezala periferiako gazteek osatua gure auzoez hitz egiteko modu interesgarrian.

Zuen lana zabaltzen al da komunitateetan?

R. Balago: Hasieran periferiaz hitz egi-ten genuen erdiguneko jendearentzat, baina gure arteko eztabaida askoren ostean, hori aldatzen hasi ginen. Komu-

nitateentzat idazten hasi ginen eta gure proiektua ezagutarazten. *Expo Mural* deitu genuen ekimena abian jarri ge-nuen. Herritar askok ez duenez Inter-neteko konexiorik, hasi ginen auzoetan deialdiak egiten, webgunean jorratuta-ko materiala inprimatuta eraman eta kaleko paretetan itsasten jendeak ira-kur zezan. Orain gutxi, Facebooken tal-deak egiten hasi gara auzoka, jendea bildu eta materiala zabaltzeko, errazago komunikatzeko moduak lortuz.

Nola dago Brasil gaur egun kazetaritza egiteko?

J.P. Brito: Oso gaizki. Faktore batzuek zailtzen dute kazetariaren lana. Datuak ez dauzkatz, baina Brasil munduko herri-aldetik arriskutsuenetakoa da ka-zetariarentzat. Sao Paulo, Rio de Janei-ro edo Brasilian egiten den kazetaritza seguruagoa izan daiteke. Kazetaritza urbanoagoa nolabait esatearren, medio handien egoitzetan, batzuek segurtasu-na dute lana egiteko. Baina beste leku batzuetan, herrialdearen iparraldean, ipar-ekialdean eta hegoaldean, edo gu lanean aritzen garen lekuetan adibidez, kazetariak oso pertsona sinpleak dira, formazioa dutenak, baina beste gauze-tan ere lan egin behar dutenak. Polizia oso biolentia da eta kazetariak meha-txatzen ditu. Manifestazioak jorratzean begia galdu duten kideak badaude, be-ren familiak mehatxatu izan dituztenak, edota Brasil-dik ihes egin behar izan du-tenak ere, hilko zituztelako. Kasu kon-kretu bat aipatzearren, Brasilgo Ikerke-



ta Kazetarien Elkarteak iaz hil zituzten kazetariei buruzko filma egin zuen. Bertan jorratzen da irratan lan egiten zuen kazetari baten kasua, politikari lokal baten ustelkeria salatu zuen goiz batean eta arratsaldean tiro bat jota hil zuten. Izugarria da eta gertatu egiten da.

Zein dira kazetaritza zailtzen duten beste faktoreak?

J.P. Brito: Beste bat zentsura judiziala da. Politikariren baten ustelkeria salatzen den aldiro, politikari horrek prozesu bat abiatzen du zure aurka. Dirua, lana, indarra... galtzen ditu kazetariak. Eztabaida handia sortzen ari da gizartean gai honekin.

Eta hirugarren faktorea prekarietatea da. Erredakzio handietan ere oso lan prekarizatua dute. Kazetari askok ez du erregistro formal edo oporrik, soldata baxuak dira, eta lan gutxi dagoenez hori onartu behar izaten du jendeak.

Arazoak izan al dituzue boterearekin?

J.P. Brito: Biolentzia eta krimenen gaiak ez ditugu jorratzen normalean. *Mural* kazetariaren kolektiboa garrantzitsua da lehen aipatu dugun ikuspegitik periferien jarraipena egiteko. Badaude beste hedabide batzuk zehazki beste tematika batzuen jarraipena egiten dutenak. Adibidez, Brasilen *Ponte* izeneko hedabide oso borrokalaria eta indartsua daukagu, eskarmentu handiko kazetariekin, jarraitzeko segurtasun publikoaren eta giza eskubideen urraketak. Guk batzuetan, gai horiekin lotutako informazioak esku-

» **JOÃO PAULO BRITO:**
“Brasil munduko herrialderik arriskutsuenetakoa da kazetarientzat. Polizia oso biolentoa da eta kazetariak mehatxatzen ditu”

ratzen ditugunean, nahiago izaten dugu haiiei eman, hobeto egingo dutelako.

Brasil oso une interesgarrian dago hedabide berriak sortzen ari baitira, *Agência Pública* daukagu ikerketa kazetaritza egiten, bada beste hedabide berri bat epe luzeko kazetaritza esplikatiboa egiten duena, azken ordukoarekin kezkatuta ibili gabe. *Mural* ekosistema horren parte da.

Nola finantzatzen zarete?

R. Balago: Agentzia gara eta gure edukiak beste hedabideetan publikatzeagatik kobratu egiten dugu, *Folha de S. Paulo* egunkarian adibidez. Orain egitura finkoa sortzeko finantzazio bila gabiltza, nazioarteko programen bidez. Internet bidezko diru-bilketa kanpaina ere egin genuen hasieran. Finantzazioa dibertsifikatzen saiatzen ari gara, baina oraindik lan asko daukagu egiteko.

Ingelese ere informatzen duzue. Zergatik?

J.P. Brito: *Global Voices*ekin elkarlanean ari gara. Bertan argitaratzen dituzte gure testu batzuk eta beste hizkuntzetera itzultzen dituzte. Garrantzitsua da ingelesez ere informatzea, bestela errealitate hau ez baita nazioartean existitzen.

Amaitzeko, aukera dezakezue *Mural*en argitaratu duzuen istorio bana?

R. Balago: Orain urtebete geltokiz geltoki joan ginen, erregela batekin, trenetik nasara geratzen den tartea neurtzen. 91 geltoki orotara eta batzuetan 40 zentimetro baino hertzen zen zuloa. Konturatu ginen istripu asko gertatzen zirela jendea zulo horietara erorita, egunean hiru. Horretaz idatzi genuen erreportaje berezi bat datu guztiak mahai gainean jarritz. Tren agentziak ere ez zituen datu hauek, kolpe bikaina izan zen. Gero telebista joan zen eta gai beraz erreportajeak egin zituzten, eta gobernu hasi zen goma batzuk gehitzen zuloa konpontzeko. Kasualitatea, soilik erdiguneko geltokietan egin zituzten konponketak.

J.P. Brito: Polita iruditzen zitzaidan favela bateko eraikin bati buruz egin genuen istorioa. Zazpi pisu zituen, baina lehenik bat egin zuten, denbora batera gero beste solairu bat gainean, gero beste bat, gero beste bat eta horrela zazpi solairura heldu arte. Dena inprobisatuta. Galdera zen: nola da posible etxe hau zutik egotea? Eta etxeak eraikitzen dituzten jendearekin joan ginen, langileekin, eta gakoak erakutsi zizkien egileak. Ona izan zen. ■

Kataluniako murgiltze eredua

Espainiako Gobernuak mehatxupean jarri duen hizkuntza eredu arrakastatsua

Urtetan arrakastatsua izan bada ere, Kataluniako eskoletan erabiltzen den murgiltze sistema deuseztatzeko asmoa erakutsi du Espainiako Gobernuak, eta horrek Euskal Herrian eragin zuzena izan dezakeela uste du Sortzen Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko elkarteak. Katalunian, zeintzuk izan dira arrakastaren gakoak? Zergatik deuseztatu nahi du Madrilgo Gobernuak?



Ainhoa Bretos

@ob_ainhoa

ARGAZKIA: ANC SABADELL

Galdera horiei erantzun zieten Olatz Egiguren Sortzen Elkarteko kideak, Eulalia Buch Plataforma per la Llengua katalanaren alde ari den elkarteko gizarte saileko arduradunak eta Oriol Amorós Generalitateko Migrazio, Berdintasun eta Hiritartasun idazkaritzako arduradunak. Mahai-ingurua Sortzen Elkar-teak antolatu zuen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, otsailaren 26an.

Kataluniako murgiltze eredua (irakasgai guztiak katalanez, gaztelaniaren eta atzerriko beste hizkuntza baten irakasgaiak izan ezik) 1983an aplikatu zuten lehenengo aldiz, Bartzelonako Santa Coloma de Gramenet hiriko hemeretzi eskola publikotan. Oriol Amorósek azal dutakoaren arabera, frankismoaren ostean urrats handiak eman ziren katalanaren alde. Prozesu horretan, egiteko garrantzitsua izan zuen jatorri erdal-duneko langile mugimenduak. Seme-alabak katalanez hezi nahi zituzten, eta egindako presioaren eraginez sortu zuten murgiltze eredua.

Lortutako emaitzen ondorioz, Kataluniako 700 eskola baino gehiagotan

aplikatu zuten hurrengo sei urteetan, eta 1992tik Kataluniako hezkuntza publikoak izan duen eredu bakarra izan da. Horretarako, Generalitateak legez neurriak ezarri ditu: 1983an Hizkuntza Normalizazioaren Legea, 1998an Hizkuntza Politikaren Legea, eta 2009an Kataluniako Hezkuntza Legea.

Gizarte kohesiorako tresna

Murgiltze eredua ez da “beste munduko sistema”, bigarren hizkuntza ikasteko metodoa baizik, Amorósek azal dutakoaren arabera. Kataluniak bigarren migrazio prozesu garrantzitsua bizi izan du XXI. mendean, jatorri askotako pertsonak elkartu dira, lehenago katalanarekin harremanik izan ez dutenak. Horientzako katalanez ikastea ahalbidetzen duen metodologia sortzea ezinbestekotzat jo du.

Antzeko egoerak bizi izan dituzten zenbait herrialdetan kulturantzatasunean oinarritutako ereduak eraiki dituzte, aniztasuna errespetatuz, eta era berean ghettoak sortuz. “Ustezko errespetu” horren atzean “axolagabekeria” besterik ez

dagoela esan du Amorósek: “Pakistandarrek pakistandarren auzoan biziko dira, indiarrek indiarren auzoan, txinatarrak txinatarrenenean. Katalunian ez dugu horrelakorik nahi, kulturarteko eredua baizik”. Horretarako, Katalunian bizi diren guztiak komunean duten hizkuntza izan behar du katalanak, bere iritziz: “Elkar ulertzeko erabiliko dugun hizkuntza izango da katalana, jatorria eta ama hizkuntza edozein izanik”.

Idea horren alde egin du Plataforma per la Llengua elkarteak ere. Beste batzuentzat, aldiz, eztabaidagarria da. Izan ere, hainbatek galdetu du zergatik izan behar den katalana eta ez gaztelania komunean duten hizkuntza. “Mundua hobe da 5.000 hizkuntza badira, eta hizkuntza horiek guztiak bizirik mantentzeko garrantzia eman behar zaie. Katalana ez bada hizkuntza komuna Katalunian, non izango da bada?”, erantzun du Amorósek.

Horren harira, murgiltze eredua gizarte kohesiorako tresna arrakastatsua dela adierazi du Eulalia Buchek, “ikasle guztiak batzea ahalbidetzen du, etxean



Gazteek daramaten pankartak hala dio: denentzako herri baten alde, eskola katalanez. Som Escola hamarnaka elkarte eta erakunde biltzen ditu, eta haien helburua gizarte kohesioa lortzen duen eskola eredua babestea da.

erabiltzen duten hizkuntza katalana ez bada ere". Lan munduan trebatu ahal izateko prestatzen dituela ere esan du, "aukera berdintasuna bermatzen du, denak gara gizartearen parte garrantzitsua, inongo bazterkeriarik gabe".

Plataforma per la Llenguak egindako ikerketen arabera, sistema onuragarria da ikasle guztientzat, eta derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean ikasleek bi hizkuntzak dakizkitez. Horrez gain, beste hainbat hizkuntza ikasteko erraztasunak ematen ditu, zenbait adituren ustez, elebitasunak pertzepziozko gaitasunak garatzen baititu.

Murgiltze eredua arriskuan

Emaitza akademikoek eta gizarte ikerketek sistema arrakastatsua dela erakutsi badute ere, eta Kataluniaz harago Europako hainbat instituzioren babesa badu ere, Espainiako zenbait alderdi politiko kontra azaldu dira behin baino gehiagotan. 2012an, orduan Espainiako Hezkuntza ministro zen José Ignacio Wertek esan zuen ume katalanak "espainiaritu" egin behar zirela. Egun,

155. artikulua erabili eta Kataluniako Hezkuntza Publikoan hizkuntza lehenetasuna aldatzeko xedea erakutsi du Madridgo Gobernuak. Zehazki, hezkuntzan murgiltze sistemako matrikulazioetan izena ematerako orduan gaztelania lehenesteko aukera eskaini nahi du.

Argudiatu dute murgiltze ereduak murriztu egiten duela ikasleek gaztelaniaz aritzeko duten gaitasun linguistikoa. Generalitateak, Plataforma per la Llenguak eta beste hainbat elkarte egindako ikerketek hori ezeztatu dute. Buchek azaldu duenez, "eskoletan ematen diren orduz gain, Kataluniako testuinguruak bide ematen du gaztelaniaz ikasteko. Ikerketen arabera, ikasleek katalana eta gaztelania menperatzen dituzte arazorik gabe".

Hori dela eta, Amorós-en ustez arazoa ez da eredua, hizkuntza baizik. Azaldu duenez, katalan hizkuntza bizirik dago Espainiako Estatuko lau autonomia erkidegotan; Katalunia, Balear Uharteak, Valentzia eta Aragoi. Bere iritziz, Alderdi Popularraren eta Ciudadanos alderdiaren posizioa aldatu egiten da erkide-

go bakoitzean duten indar politikoaren arabera. Dena den, koherentzia puntu bat dutela esan du: "Egiten dute ahal duten min guztia, ahal duten guztietan, eta ahal duten intentsitatearik handiena-rekin katalanaren kontra".

Hortaz, berzentralizaziorako joerak mehatxupean jarri du Kataluniak urteotan eraiki duen eskola eredua. Sortzen Elkartearen arabera, han gertatzen denak eragina izan dezake Euskal Herrian ere. Beraz, "gogoetak partekatu eta hizkuntza eta kulturaren aldeko adostasun zabaletan oinarritutako ekimenak ezinbesteko lanabes" izango direla uste du, bai Euskal Herrian bai Katalunian.

Euskal eskola publikoa une garrantzitsuan

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza akordioa erdiesteko prozesua eta oinarritzko dokumentua mahaigaineratu dituela azaldu du Olatz Eigurenek. Akordioaren oinarrietako batek zera dio, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, bi hizkuntza ofizialean "gaitasun aurreratua" eta atzerritar hizkuntzan maila ertaina bermatuko dituela, "ikasle guztien abiapuntua edozein dela ere, garapen pertsonal, akademiko eta profesionala lortzeko asmoz". Ordea, dokumentu horrek ez dau aurreikusten ereduen sistema gainditzea.

Horren harira, Euskal Autonomia Erki-degoko hezkuntzan ezarrita dagoen hizkuntza ereduaren sistemak kale egin duela uste du Sortzenek, "gazte kopuru handiegia uzten baitu euskaldundu gabe". Dena den, eskolaz gain, komunitatearen eta gizartearen ardura ezinbestekoa dela azaldu du, "herri zein auzoetan euskararentzako eremu berriak irabazteko".

Nafarroan ere, Euskararen Legea alda dezakeen batzordea eratu du Parlamentuak. Izan ere, egungo legeak zonifikazioa ahalbidetzen du, eta eskubideak zaitu. Hori aldatzeko lehen urratsa eman du Nafarroako Parlamentuak.

Hortaz, Hego Euskal Herria euskararen normalizazioari bide emateko une garrantzitsuan egon daitekeela uste du Sortzenek, baldin eta irekitzen ari diren zenbait aukera baliatzeko behar den "borondate eta ausardiaz" aritzeko gai bada. Ikasle euskaldun eleantiztunak heziko dituen ereduaren beharra azpimarratu du elkarteak, izan ere, "nola ulertu aniztasunean barnebiltzen den aberastasuna geure izaera eta hizkuntzatik ez bada?". ■

Louisa Wall

“Datozen hamar urteetan Zeelanda Berriaren erabateko deskolonizazioa lortzeko esperantza daukat”

Zeelanda Berriko errugbi izarra, LGBTI kolektiboaren borrokan liderra eta herrialdeko komunitate indigenaren defendatzaile sutsua da Louisa Wall maoria (1972). Parlamentari dihardu, britainiarren kolonizazioak utzitako ondorioei aurre egitea helburu.



Amaia Zabala Tolosa

5 urterekin hasi zinen errugbian jokatzeko, 1988an Emakumeen Munduko Lehen Errugbi Kopa irabazi zenuen BlackFerns taldearekin eta netball eta errugbi kirolen ordezkari nazionala ere izan zara.

Errugbia Zeelanda Berriko kulturaren parte da eta bertako herritar izanik poz izugarria da kirol honetan jokatzeko eta arrakastatsua izatea. 70eko hamarkadan jaio nintzen eta nire garaian neskek kirol hau praktikatzeko ez zen ohikoa, hala ere, aitak mutilen talde batean nire izena eman zuen eta ez nintzen txarra. Baina neskatoa nintzela ohartzean berehala bota ninduten taldetik eta hel-duxeago izan arte ez nuen berriro klub batean parte hartzeko aukerarik izan. Pixkanaka nabarmentzen eta emaitza onak lortzen hasi nintzen eta arrakastarekin batera ametsak izaten hasi ere; gure nazioa ordezkatzeko ametsa egia bihurtzea izan zen.

Zein da emakumeen kirolaren egoera Zeelanda Berrian?

Zeelanda Berria, beste hainbat herrialde bezala, irekia eta inklusiboa dela si-

nesten dut. Ez daukagu estereotipoen aurka borrokatu beharrik, inork ez du esaten emakumeek ezin dutenik kirolean parte hartu. Alderantziz, emakumeak kirolean parte hartzeri animatu ohi dira. Eta emakume kirolari miresgarriak ditugu, oso konpetitiboak eta arrakastatsuak, harro nago daukagun mailaz. Esango nuke Zeelanda Berriko emakumeek abantaila dugula horretan.

Datorren Emakumeen Munduko Errugbi Kopa zuen herrialdean jokatzeko deia egin duzu.

Zeelanda Berria Munduko Kopako irabazle bost aldiz izan ondoren, bada garaia. Nik txapelketa jokatzeko nuen familiaren eta komunitate osoaren sekulako babesa jaso nuen beti, baina ezin zuten inoiz partidua ikusterat joan atzerrira, ezin zuten bidaia ordaindu. Edozein kirolarirentzat oso pozgarria da etxean jokatzeko senide, lagun eta herriaren aurrean. Gainera merezi duen aitortzea emango lioke emakumeen errugbiari: egindako lanari errespetua adierazteko eta gure

txapelketa profesional propioa izatea zein garrantzitsua den erakusteko modua litzateke.

Nazioarteko partiduetan, Zeelanda Berriko jokalariek Haka dantza deigarria egin ohi dute.

Haka indigenen tradizioetik dator eta jo-koarekiko konpromisoa, erronka eta elkarrenganako errespetua adierazteko dantza da. Indigenen errugbi txapelketa batera joaten bazara, haka bi taldeek aldi berean egiten dutela ikusiko duzu. Lehiaketarako prestatzeko eta boterea erakusteko errituala da. Errugbi taldeek bereganatu dute eta indigenen herriari ohore egiteko modua bat da. Gure kulturaren eta hizkuntzaren zati bat munduari erakusteko balio du.

2015ean politikara egin zenuen salto. Zerk bultzatuta?

Politikari lotuta egon naiz beti, batez ere nire komunitateari eta gizarteari; ezin naiz injustizien aurrean isilik eta ezer egin gabe geratu. Horregatik, nahiz eta kirolean erabat zentratutik



AMAIA ZABALA TOLOSA

egon, karrera bat ere atera nuen eta politika sozialari buruzko masterrarekin amaitu nituen ikasketak. Gure sistema politikoko erronka askotan parte hartua nintzen, unibertsitatean ere elkarte politiko askotan inplikatu nintzen eta pertsona publikoa izanik jendeak asko jotzen zuen nigana gai politikoen inguruko kezka eta kexeekin. Eta azkenean esan nuen, gure familientzat soluzioak nahi badituz, ez da nahiko sistema publikoko parte izatearekin, sistema politiko hau sortzen parte hartu beharra dago. Eta hori parlamentuan gauzatzen da, beraz zerbait aldatu nahi bada bertan egon beharra dago.

Eta parlamentari egin zinen.

Alderdi Laboristarekin bat egin nuen [Gobernuan gaur egun], niretzat beti izan da batasunaren alderdia, maori

» “Onartezina da Pazifikoan LGTBI izateagatik norbait kriminalizatzea, baina horiek ez dira gure legeak, Britainia Handiko legeak dira, haien kolonizaziotik jaso ditugun legeak, eta bada horiek aldatzeko garaia”

eta indigenen komunitatearekin elkarbizitza sustatzeko pausoa eman duen eta berdintasun harremana izan duen alderdia. Behin parlamentuan sartuta, erronkaz beteriko lana da, multidimentsionala. Alde batetik hautesleen bulegoan egiten duen lana eta bestetik parlamentukoak. Manwreawko herritarrek aukeratu ninduten parlamentuan haien ordezkari izateko, beraz herri honek dut hautesleen bulegoa, eta astean behin haietaz arduratzen naiz bertan. Zoritxarrez, jendea krisian dagoenean soilik hurbiltzen da, kexak, kezkak eta arazoak planteatzeko edo denbora luzez itxaroten ari diren zerbait eskatzeko. Nire esku dagoen guztia egiten dut beraiekin elkarlanean konponbideak bilatzeko. Une honetan esaterako, zabor bilketari lotutako arazo handi bat dut eskuartean.



Eta horrela al da Zeelanda Berriko komunitate guztietan? Herritarrek parlamentuko ordezkariarekin kontaktu zuzena dute?

Bai, parlamentariak astean egun finko bat du herritarrekin elkartzeko; bizilagunek hitzordua eskatzen dute. Berehalako zerbitzua behar duten kasuetan, hauetan bulegoko gainontzeko langileak arduratzen dira.

2012ko zure ekimenari esker, Zeelanda Berria sexu berekoen arteko ezkontzak onartzen lehena izan zen Ozeanian eta hamahirugarrena munduan.

Une egokia zen, AEBetan hauteskundeak ziren eta Barack Obamak apustu bera egin zuen. Horri esker eztabaidagai bihurtu zen alde guztietan. Frantzia, Ingalaterra, Irlanda eta munduko hainbat lekutan hasiak ziren legeztatzeko prozesuarekin eta argi neukan Zeelanda Berria prest zegoela eta ez zuela beldurrik izan behar eztabaida honetan sartzeko. Legeztatze prozesuaren lidergoa nire gain hartzea eta borroka hau irabaztea erabaki nuen; hasi nintzen araudia aztertzen eta egunkarietara iritzi-artikulua bidali nuen. Gaia pil-pilean jarri zen hedabideetan.

Eta zuk giza eskubideen urraketa zela zenioen...

Hala da, urraketa argia, gobernua herritarren zati bat diskriminatzen ari zelako. Gobernuak ez dira erakunde erlijiosoa, herritarren interesak eta eskubideak babestuta daudela bermatu behar duten

erakundeak baizik. Transexualen kasuan adibidez, gutxiengoa dira eta gizartetik baztertuta daude, jarrera aldatu behar dugu, gizarteak ezin ditu diskriminatu, eta gobernuari dagokio bereziki haiek babestea. Onartezina da Pazifikokoan LGTBI izateagatik norbait kriminalizatzea, baina horiek ez dira gure legeak, Britainia Handiko legeak dira, haien kolonizaziotik jaso ditugun legeak, eta bada horiek aldatzeko garaia.

Zeelanda Berriak transgeneroen ebakuntza gehiago finantzatu beharko lituzkeela esan duzu sarritan.

Ebakuntza hauetan aditua zen zirujau bat geneukan herrialdean eta duela lau urte jubilatua zen, beraz une honetan ez daukagu zirujaurik. Azken hiru urteetan ez da hemen ebakuntzarik egin, jendeak kanpora bidaiatu beharra dauka eta ebakuntza euren poltsikotik ordaindu. Gizonetik emakumerako trantsizioa nahi duten 73 lagun eta emakumetik gizonerako trantsizioa nahi duten 21 lagun ditugu itxaron zerrendan. Nazio bezala gure herritarrek kanpora bidaltzen eta babes gabe uzten ari gara, eta gai izan beharko ginateke genero-kirurgiak gauzatzeko. Dena den, ez dut uste soilik hemengo arazoa denik, premiazko elkarriketa global baten beharra dago gai honen inguruan. Haur intersexualen kasua esaterako; sexu-organo anbigueoekin jaiotzen dira, 2.000 haurretatik bati gertatzen zaio, hortaz Zeelanda Berrian urtean 30 haur jaiotzen dira bagina eta zakila, biak dituztela. Egun, medikuek

zuzenean ebakuntza egiten dute eta batzuetan gurasoek eta bestetan medikuek erabakitzen dute umearen generoa, gehienetan neska. Baina hori ez da irtenbidea, medikuek ziurtatu behar lukete bi funtzioak ondo daudela, genitalek osasun arazorik ez dutela eta haurra bere kabuz erabakitzeko gai den arte itxaron beharko litzateke, ebakuntza egiteko. Bi urte daramatzagu gai honetan lanean Giza Eskubideen Aldeko Batzordean, eta duela gutxi Zeelanda Berriko pediatren elkartearen babesa lortu dugu.

Premiazko gaia da: 2011n gobernuak egin zuen ikerketa baten arabera, LGBTI pertsona bazara hiru aldiz aukera gehiago dituzu alkohol edo droga-menpeko izateko, talde diskriminazioa jasateko eta zure buruaz beste egiteko. Trans pertsona bazara, lau aldiz aukera gehiago dituzu. Munduan 76 herrialdetan kriminalak gara LGTBI izateagatik eta munduan 13 herrialdetan hil egin gaitzakete. Familia eta komunitateekin kontzientziazioa lana egiten dugu, baita erlijio komunitatearekin ere, orokorrean erlijio gehienek LGTBI komunitatea babesten ez duten arren. Baina bereizketa egin behar da erlijioetako buruen eta sinestunen artean, ni neronei bataiatua naiz, ofizialki kristaua naiz.

Munduan bizi-kalitate eta hezkuntza sistema onenetakoa duen herrialdeen artean da Zeelanda Berria, eta ingurumena gehien zaintzen duen munduko bosgarren herrialdetzat hartzen da. Bat zatoz?

Oro har, seme-alabak hezteko leku ezin

Wallek gidatu zuen sexu berekoen arteko ezkontza Zeelanda Berrian legeztatzekeko prozesuaren lidertza. Errugbi izarra ere izan da. "Emakume kirolari miresgarriak ditugu, oso konpetitiboak eta arrakastatsuak, harro nago daukagun mailaz" (Gettyrenak dira ezkerreko argazkiak). Eskuinean, bere bulegoan elkarrizketa egiten.



hobea da hau, baina 90eko hamarkadaz geroztik aberatsen eta pobreen arteko aldea handitzen ari da, eta nazio txikia izanik, guztiontzako bizi-kalitate ona bermatzea posible izan beharko genuke. Adibidez, etxe publiko gehiago behar ditugu etxegabeentzat. Bestalde, Auckland hirian herrialde osoko herena bizi da, populazio berri asko etorri da eta hiriko azpiegiturak ez daude prestatuta hainbeste jenderentzat. Hainbat herri-tan aldiz, biztanle oso gutxi bizi dira, oreka bilatu beharko genuke.

Jacinda Ardern lehen ministroak jakinarazi du haurdun dagoela; haurdun egoitea eta ardura postuak izatea bateragarri diren seinale.

Emakume bat haurdun izatea munduko gauzarik normalena da. Bikotearen erabakia da eta gizonek ere hazi ditzakete haurrak, mezu hori zabaltzeko behar da. Emakumeek haurra izatea ez da esanguratsua, baina gizonek emaztearen karre-ra profesionalari lehentasuna ematea eta seme-alabak zaintzeko ardura bereaiek hartzea, hori bai da esanguratsua.

Waitangi Eguna ospatu zen otsailaren 6an. Zein esanahi du egun honek?

1840an *Treaty of Waitangi* dokumentua sinatu zuten maori eta britainiarrek, Zeelanda Berriak gobernu egonkor bat izatea helburu. Aurretik maoriak herri propioa ginen, 1835ean nazioarteak aitortua, baina britainiar eta frantziarrak gure lurren atzetik zebiltzan eta britainiarrek maoriak konbentzitu zi-

tuzten, lur hauek legeak behar zituztela esanez, hortik jaio zen akordioa. Nire maori eta indigena ikuspegitik, ordea, kolonizazioaz hitz egin beharra daukat. Akordioaz mintzo dira baina argi dago lur hauek bereganatzea zutela helburu. Batzuek Waitangi Egunean nazioaren sorkuntza ospatzen dute, eta guretzat ordea, gure bizimodua uztera behartuak izan ginen eguna da. Britainiarren legeak inposatu zizkiguten maoriei, indibidualismoan oinarritutako sistema kapitalista hain zuzen. Jendeak lan egin eta soldata bat jasotzen du eta diru horrekin lurrak eta etxeak jabetzan hartzen ditu. Maorion sistema erabat bestelakoa zen, komunitate bateko parte ginen eta arrantza eta uztakomunalki egiten genuen. Hori guztia galdu genuen.

1975ean parte-hartze prozesua deituriko akordioa sinatu genuen, nik adiskidetzeko prozesua deitzen diot, gure *Treaty of Waitangi*. Akordio horri esker, aitortza eta ordain ekonomikoa jaso ditugu. Hala ere, egun oraindik konplikatu da maorien eta Zeelanda Berriko Gobernuaren arteko harremana. Dirua eta lurrak lapurtu zizkiguten, emakumeak bortxatu, indigenak bahitu, torturatu eta kartzelaratu... Ezin dituzu lurrak zure egin manta, tabako eta alkohola pixka baten truke. Gure historia koloniala, munduko edozein lekutan bezala, diru-goseagatik eta nagusitasunagatik izan zen. Erabateko giza zapalketa izan zen, maoriera hitz egitea ere debekatu ziguten.

Eta gaur egun ba al dago indigenen hizkuntza babesten duen legerik?

Bai, 1995eko legeari esker, ingelesarekin batera Zeelanda Berriko hizkuntza ofiziala da eta baita zeinuen hizkuntza ere.

Eta zein da maori jendearen egoera sozio-ekonomikoa?

Aucklanden bizi diren maorien %28 soilik da etxearen jabe, beste guztiak errentan edo gobernuak ezarritako etxebizitza publikoetan bizi dira. Eta familia asko eta asko oso baldintza txarreko pisuetan bizi dira, elektrizitate gabe esaterako. Desoreka handia dago: laguntza ekonomikoak behar dituzten familien %60 maoriak dira, eta kartzelako populazioan gauza bera. Lapurreta kolonialaren ondorioak jasaten ari gara oraindik. Hirietara etortzera behartuak izan ginen familiaren babesik gabe eta jendeak pobrezian amaitu du. Eta belaunaldiz belaunaldi errepikatzen da historia.

Zeelanda Berria herrialde independentea da, baina oraindik Erresuma Batuko erregina duzue, nola likete?

Kolonizazioaren ondorioa da. Gobernu eta parlamentua antolatzeke modua, ezarritako legeak... eta teknikoki Zeelanda Berriko gobernadore orokorra Elizabeth II.a da. Oraindik kolonizazioaren aje asko ditugu konpontzeko, tartean errepublika bihurtzea edo bandera aldatzea. Datozen hamar urteetan erabateko deskolonizazioa lortzeko esperantza daukat. ■

Reiki terapia

Energiaren kanalizatzaileak

Rei; unibertsoa eta Ki; energia, unibertsoaren energia, alegia. Izen hori hartzen du eskuen bitartez energia gorputzera transmititzea helburu duen terapiak, desorekan dagoena orekatzeko.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

@xorginkeiak

ILUSTRAZIOA: IZARO MARIEZKURRENA



Medikuntza forma hau Japoniatik dator, Mikao Usui budistak garatu zuen 1922. urtean. Gorputz fisiko zein energetikoak orekatzeko da helburu. Maila fisikoa, emozionala, espirituala eta mentala orekatzen dituela diote adituek. Energia hori pertsonok garraiatzen dugu Reiki terapian, kanalizatzaileak gara. Burutik sartu eta eskuetatik ateratzen dugu eta geure buruari zein beste pertsonari transmititu.

Nekane Garcia Arbelaiz 2007an hasi zen terapiaz ikasten eta hari eta familiari ekarritako onurak kontuan hartuta irakaslea izateko diploma eskuratzea erabaki zuen. Orain kontsulta dauka Hendaian: "Urte asko daramat terapia naturalen eta garapen pertsonalaren inguruan ikasketak egiten: Reiki, coaching, naturopatia, kinesiologia, tapping, Bach Loreak, elikadura osasuntsua, meditazioa... Besteak beste, nire emozioak hobeto kudeatzen, intuizioa berreskuratzen, bizitza modu positiboagoan ikusten eta energia gehiago izaten lagundu dit. Besteei ere irakutsi nahi nien hori".

Reiki ikasteko tailerrak ematen ditu Garciak, eta geroztik eta jende gehiago hurbiltzen dela kontatu digu. "Urtean gutxi gora-behera 60 lagunek jasotzen dute ikastaroa, adin eta era desberdinetakoak. Bi hilero egiten ditut eta taldea

sortzen bada lehenago ere bai", kontatu digu. "Gizartea geroztik eta kontzientziazioa da gure ongizate eta osasunaren zati handi bat gure esku dagoela. Hala, bizi kalitatea hobetzea du helburu hurbiltzen den ehuneko handienak: antsietate eta depresiorik gabe bizi, bizi pozez, energiarekin eta emozionalki orekan".

Lierni Arrieta Iruretak jaso du jada ikastaro hori. Lau "maila" daudela azaldu digu. Berak lehenengoa egin du, bi aldiz gainera: Hendaian eta Durangon. Egun bateko ikastaroa izan zela adierazi du eta ondoren ariketak egin behar izan zituztela hiru bat astez eta egunean hamar bat minutuz.

Arrieta ama izan zenean hasi zen Reiki nahi gabe hurbiltzen. Haurrekin komunikatzeko eta konektatzeko masa-jeekin hasi zen. Gerora, ordea, gehiago nahi zuen. Aitari alzheimerreko diagnostikatzeko ere bultzatu zuen horretara. Gaur, etxean eta etxekoekin erabiltzen du Reiki, batez ere bere buruarekin: "Gauetan esnatu eta ezin lokartu nagoenean, haserretzen naizenean, haurrak gaixorik daudenean, aitarengana hurbiltzean...". Eskuek transmititzen duten energiarekin gain, unea bera mires-ten du Arrietak, denbora hori hartu eta zurekin zein bestearekin konektatzeko: "Ezer egin gabeko momenturik ez dugu hartzen. Lotan ez bada, ez dago isilta-

sun hori, egoten egote hori. Besteari egiten ari zarenean ere, besteaz pentsatzen ari zara, bestearenean zaude. Hori ere ez dugu askotan egiten eta opari bat da". Eskuek gorputzeko atal desberdinetan ipintzeak ere gorputzarekiko lotura estutzen duela gaineratu du: "Sustraietako txakra erreparasatzen ari zarenean, adibidez, garunak zera dio: sustraitu zaitez! Hemen zaude eta hau da errealtatea".

Reikia, ordea, gaixotasunak baretzeko erabili ohi da, ez beti sendagai gisa. Arrietak adibide bat jarri digu: "Lagun baten amona gaixo zegoen, hilzorian, eta Reikiarekin heriotza lasaia izan zuen". Garciak gehitu du gaixotasun larri eta kronikoen kasuan oso lagungarria dela, animotsu mantentzen laguntzen baitu. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) Reikia onartu du eta erietxe gehiagotan erabiltzen ari da.

Norberarentzat erabilgarria zer den baloratu beharko genukeela azpimarratu du Arrietak: "Pertsona batek, agian, gaixoaldi hori beharko du bere bizipe- nean eta hori ere onartu behar da. Bakoitzak bere bidea egingo du eta Reikiak samurtzen lagunduko dio. Seme-alabak gaixo egon eta Reiki egiten diedanean, hobeto ikusi izan ditut. Baina, agian hobera egin behar zutelako da. Hori ez da kit neurtzen". ■

STREISAND (EDO **EROSTRATO**) EFEKTUA




Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Efeso, K.a 365eko uztailaren 21a. Artemisaren tenplua, Antzinaroko zazpi mirarietako bat, erre eta suntsitu zuten. Erostrato izeneko artzaina epaitu eta kondenatu zuten sutearen erruduntzat. Pertsiar errege Artajerjes III.ak aginduta, torturapean lortu zuten krimenaren aitortza; ospea nola edo hala lortzea omen zen Erostratoren helburua.

Erregeak berak emandako epaian, erruduna heriotzara kondenatzeaz gain, haren izena aipatzea ere galarazten zen, heriotza zigorpean, ospearen helburua betiko ukatzeko. Valerio Maximo erromatar idazleak ez zuen *damnatio memoriae* lege hori hautsi, ez zuen supiztailaren izenik aipatu, baina zera iragarri zuen: “Gizon batek Dianaren Efesoko tenpluari su ematea planeatu zuela jakin zen eta, hala, haren izena mundu osoan ezaguna izango zen eraikinik ederrera suntsitzeagatik”. Teoponpo greziar historialariak ere sutearen berri jaso zuen lehenago eta, gainera, Erostrato aipatu zuen.

Horrenbestez, Valerio Maximoren profetia bete zen eta Erostratoren izena lau haizetara zabaldu zen. Victor Hugo, Anton Txekhov, Lope de Vega, Unamuno, Jules Verne, Jean-Paul Sartre, Gore Vidal... luzea da Erostrato beren lanetan aipatzen duten idazleen zerrenda. Mi-



7 WONDERS / CALIFORNIA COASTAL RECORDS PROJECT

Ezkerrean, Artemisaren (edo Dianaren) tenplua Efeson, Antzinaroko zazpi mirarietako bat. Eskuinean, Barbra Streisand abeslari eta aktorearen etxea Kaliforniako kostaldean. Itxuraz bi eraikinek ez dute zerikusirik, baina biek lotura estua dute Streisand efektuarekin.

guel de Cervantesek berak, *On Kixote Mantxakoan*, Erostratorekin gertatutakoa jaso zuen; ospea bilatzen zuelako ahanzturara kondenatu zutela baina, azkenean, kontrakoa lortu zutela, alegia. Esanguratsua da Cervantesek artzainaren izena jasotzea eta erregea aipatu ere ez egitea.

2003an Barbra Streisand abeslari eta aktoreak, pribatutasunerako eskubidea alegatuz, salaketa jarri zion Kenneth Adelman argazkilaritari, bere etxeari aitretik egindako argazkiak erretiratzeko eta 50 milioi dolarreko ordaina eskatuz. Adelmanek argudiatu zuen Kaliforniako

kostaldearen higadura dokumentatzeko egin zituela argazkiak eta Streisanden salaketak ez zuen aurrera egin. Kontrako efektua lortu zuen gainera, argazkia *birala* egin baitzen interneten.

Orduz geroztik, Erostratorekin eta beste askorekin gertatutakoei Streisand efektua esaten zaie. Berdin esan zekioken Erostrato efektua. Baina egia da, psikiatriaren eremuan, ospea edozein bidetatik bilatzeari Erostrato konplexua esaten zaiola. Torturapean, egia izan ala ez, torturatzaileak nahi duena esateko efektuari, ordea, oraindik ez diote inoren izena jarri. Eta bada non aukeratu. ■



GODFREY KNELLER

Newtonen lehen hitzak parlamentuan

1689an Isaac Newton Erresuma Batuko Lorden Ganberako kide izendatu zuten, Jakue II.a erregea tronutik kendu eta berehala. Newtonen lorpen zientifikoek zerikusia izan zuten horretan, baina errege ohiaren aurka Cambridgeko unibertsitatea defendatzen egindako ahalegina erabakigarria izan zen izendapenean. Luzaroan, ordea, zientzia-

laria eserlekuan isilik egon zen, egun batez altxa eta hitza eskatu zuen arte. Eta denek jenioaren hitzaldi gogoangarria espero zutenean, zera bota zuen: “Eskuineko leiho hori ixteko erregutzen dizuet, haize-laster izugarria sartzen baita”. Handik aurrera ere ekarpen gutxi egingo zuen goi ganberan –eta asko laborategian–. ■

Usainez usain



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

IRUDIA: SENSORYMAPS.COM



Iruñeko usainen mapa egin zuen 2014an Kate McLean artistak. Zitadelara joan omen zen, irrikaz, belarra, zuhaitzak eta mendiko airea usaintzera.

Udaberriak ekarri dit gaia sudurraren aurrera. New Yorkeko ikerketa gune desberdinetan lan egiten zuten C. Bushdid, M. O. Magnasco, L. B. Vosshall eta A. Keller zientzialariek 2014ko martxoan *Science Magazine* sonatuan argitaratu zuten artikuluak zalaparta polita sortu zuen. Izenburuak dena dio: "Pertsonok bilioi bat usain baino gehiago bereizteko gai gara". Zehazki, usaina esan beharrean *Olfactory stimuli* diote ingelesez, hau da: usaimen eragingarriak. Ez zuen asko uste jendeak bere sudurraren ahalmena hainbesterainokoa zenik...

G. Ohloffek 1994an esan zuen *Scent and Fragrances: The Fascination of*

Odors and Their Chemical Perspectives liburuan: arrosaren (*Rosa spp*) usain ezaugarria 275 osagaien nahasketak sortzen du, baina osagai horietako gutxi batzuk besterik ez ditugu usaintzen. Marrubiaren (*Fragaria vesca*) usainak 350 bat osagai omen ditu...

Zenbait usainek txoratu egiten gaituela esan ohi da, baina usainei etekin ederra ateratzen dienik ere bada. Kate McLean Diseinu Grafiko programaren zuzendaria da Ingalaterrako Kenteko Canterbury Christ Church Universityn. Artista ezaguna bihurtu da mundu guztiko hiri ugaritako usainen mapak egin dituelako. Edinburgoko usain nagu-

siak garagardo, soropil, itsaso, patata frijitu denda eta loretan dauden gereziandoena (*Prunus spp*). Singapurgoak frangipani loreena (*Plumaria spp*) eta jasmina edo urkitza (*Jasminun officinale*) dira. Taillinen egurrarena eta ardo beroarena. Kiebia pinua eta poztasunaren usainak hartu zituen. Amsterdamen intzentsua (*Boswellia sacra*) eta jatenak.

Iruñeko usainen mapa ere egina du, 2014ko Mapamundistas egitasmoan. Zitadelara joan omen zen, irrikaz, belarra, zuhaitzak eta mendiko airea usaintzera. Deskuiduan mendi aldera joan izan baltz, zer nolako mapa egingo ote zuen? ■



943 64 17 10
www.endanea.com
 Jaizubia 40, Hondarribia

Gozatu udaberria

Udaberriak ematen dizkigun lore eta koloreez gozatzeko unea da!










EMAKUMEENTZAKO SENDABELAR TAILERRAK

Osasunaren autogestioa lantzen



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Arrasaten dihardu Ekin Emakumeak elkarteak. “Gure hiru ardatzak euskara, aniztasuna eta emakumeak dira”, azaldu du Amagoia Muniozguren Urkiza ki-deak. Osasunaren autogestioa lantzeko emakumeentzako sendabelar tailerra egin dute otsailean eta martxoan.

Ama lurrak eskainitako lehengaiekin botikina osatzen

“Galtzen hasita zegoen jakintza berreskuratzea eta gure osasunaren autogestioa guk geuk egitea da asmoa”, dio Muniozguren. Izan ere, ahaztu egiten zaigu askotan gure inguruak osasuna zaintzeko hamaika landare eskaintzen dizkigula, farmaziako botikin asko baino eraginkorragoak. Sendabelarrekin etxerako oinarritzko botikina osatzea izan dute helburu tailerrean: olioak, tinturak, jarabeak, gatzak edota ezpainetako baltsamoak egiten ikasi dute, besteak beste.

“Lehenik inguruan dauzkagun landare eta sendabelar ezberdinak eta horietako bakoitzak dituen propietateak ezagutzeko saioak egin ditugu”, dio elkarteke kideak. “Landare bakoitza zertarako erabil daitekeen eta gure gorpu-

tzak adierazten digun minaren arabera zer datorkigun ondo eta zer ez ikastea da asmoa”. Behin teoria ikasita, mendi irteera egin dute landareak jasotzeko eta bakoitzarentzat zein den garai egokiena ikasteko.

Emakumeen saretzea tailerren bidez

Hirugarren urtez antolatu du aurten Ekin Emakumeak elkarteak emakumeentzako sendabelar tailerra. Interes handia pizten duen ekimena dela adierazi du Muniozguren: “Beti izan du arrakasta handia tailer honek. Jakin-min handia dago gai honen inguruan, eta oso aberasgarria izan ohi da, adin tarte handiko emakumeak elkartzen baikara”. 20 urte ingurutik 70 urte bitarteko emakumeak elkartu dira tailerrean aurten. Aniztasun hori oso aberasgarria dela uste du antolatzaileak, eta tailerrak elkar ezagutzeko eta emakumeak elkarrean artean saretzeko ere balio duela.

Ekoudalatz elkarteko kideak ari-tu dira sendabelar tailerrean irakasle, baina parte hartzaileek ere euren artean dakitena elkartrukatzeko. “Batek landare bat aurkitu badu ekarri egiten du, nola lehorte ikusten dugu... Bakoitzak ahal eta nahi duena aporteratzen du tailerrean”, adierazi du Muniozguren. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Martxoak 28: Bilbo

Eskutartie VIII. Azoka. Udaberriko produktuen erakusketa eta salmenta. Areatzan.

Martxoak 28: Maule-Lexarre

Zero Phyto, %100 Bio filma. 20:30ean, Maule Baitha zineman.

Martxoak 29: Baiona

Urdaiazpikoaren azoka.

Martxoak 29: Busturia

Paduran ibilbide gidatua. 10:30ean, Urdaibaiko Ekoetxean.

Martxoak 29: Legazpi

Artzaitxo Eguna, bisitaldi gidatua. 11:00etan Errezabal baserrian.

Martxoak 29: Aramaio, Oleta

Artzain egun batez. 12:00etan, Atxeta gaztandegian.

Martxoak 29: Metaute

Boilurraren Museoa, 11:00etan, bisitaldi gidatua.

Martxoak 30: Zeanuri

11:00etan Saldropon, bertako hezegunera eta Otzarretako pagadira bisita gidatua.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

Gure Errepublikan eman eta hartuz, denok ongi bizi gaitezen elkar zaintzen dugu. Sartu Azokan eta ikusi ARGIA Jendeak komunitateari musutruk eman dizkion gaiak. Oraindik ez bazara ARGIAkoa, oraintxu duzu egiteko aukera.

Dagoeneko erabiltzen ez dituzun gauzak, edo norberak etxean, lanean, militantzian egindakoak ARGIA Jendeari emateko aukera dugu. ARGIAko komunitatearen arteko harremanak bultzatuko ditugu horrela. Indartu dezagun indartzen gaituena! Twitterrez jarraitzeko: @argiaAzoka

www.argia.eus/azoka

LARRAULGO USADIOAK SENDABELARREKIN

Pertsonentzako erremedioez gain abereentzako sendabelarrak ere badatoz liburuan, baita landareen argazkiak ere. Otaegik uken-duak, kremak, hortzetako pastak, olioak edota xaboiak egiteko errezetak ere ematen ditu. Larraulgo aitona-amonei egindako elkar-riketak ditu liburuak oinarri.

Ezaugarriak:


- Egilea: Pili Otaegi.
- Argitaratzailea: Larraulgo Ekomuseoa, Dina 7 Kultur Elkarteak.
- Orrialdeak: 93.



ARGIA Jendearentzat musutruk

69 salgai ditugu ARGIAren Azokan:
argitalpenak, mahai-jolasak, jantziak, ikus-entzunezkoak eta bestelakoak.
ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun 21 gai ere badira!

ARGIA Jendeok musutruk eskuratu ditzakegun beste gai batzuk:



Lauburua mahai-jolasa

1.600 froga, galderen bidez zuhurtzia, zortea, sena eta abilezia lantzeko. 2-4 jokalarientzat. 8 urtetik gorakoentzat.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Umeentzako zurezko aulkitoxa

Helduen neurri guztietako aulkietara erraz egokitzen den aulkitoxa. Uhalak ditu, kuxina beltza eta eramateko zorroa.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Umeak mahaian esertzeko aulkia

Erroska sendoekin mahaiari lotzen zaio. Oihal plastifikatuz egina, erraz garbitzeko. Eramateko zorroa du.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Hitzaldia eman zutenak: Juan Jose Ibarretxe (Agirre Lehendakaria Zentroa), Leire Cancio (Elhuyar), Bego Zuza (ARGIA), Amaia Zarrabeitia (Elhuyar), Juan Mari Larrarte (Elkar) eta Abel Ariznabarreta (Ikastolen Elkarte).

Euskalgintzako enpresak aztergai, iraupenerako gako bila



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Euskararen biziberritze prozesuaren balioak hitzaldia antolatu zuen Agirre Lehendakaria Zentroak martxoaren 20an Bilbon, EHUn egoitza. 40-50 urteko ibilbidea duten lau proiektu haueta ordezkariek kontatu zuten, nor bere esperientziatik, zein hiru balioak lagundu dien enpresa aurrera ateratzen: Elhuyar, Ikastolen Elkarte, Elkar eta ARGIA. Azpimarratu zituzten ideiak *Gaitzerdi* blogeko kronikan irakur ditzakegu.

Sei balio nagusiak

Hitzaldi horren oinarrian, Elhuyarrek euskalgintzako lau proiektu hauek ikerituz egin duen lana dago; enpresa bakoitzaren ibilbidean gakoak izan diren hiru prozesu aztertu dituzte eta elkarren artean dauden antzekotasunak bildu.

Jon Abril Elhuyarko kideak azaldu zituen ikerlanaren ondorioak: "Lau erakundeetan sei balio nagusi nabarmentzen direla ikusi dugu: burujabetasuna eta autonomia; konpromisoa, izaera militantea; elkarlana (arreta deitzeko neurrikoa da); barne demokrazia; erresilientzia, egoeretara egokitze gaitasuna; eta berdintasuna, pertsona eta langileen zentralitatea".

Euskalgintzako enpresa hauek bete betean "berrikuntza irekia"ren paradigmaren koka daitezkeela azaldu zuen: "Helburu argia eta definitua dutelako; ekosistema bizi eta malguak dira; pertsonen konpromisoa eta garapena handiak dira; lidergo partekatuak dira; elkarlana egiten dute kanpoko eragileekin; eta ezker-eskuin jokatzeko gaitasuna dute, oreka bilatuz ekonomikoki aurre egiteko beren helburu sozialari".

Ekosistema konplexua, zorionez

Abrilek azpimarratu zuen euskalgintzako proiektu hauen bereizgarria dela konpetentzia eta kooperazioa, biak uztartu dituztela biziraupenerako: "Sarri entzun dugu erakunde gehiegi ote garen, jo behar ote genukeen ekosistema ximpleago batera. Lan honetan ikusten da nahiz eta lehiatu behar izan dugun momentu batzuetan, aldi berean gaitasuna izan dugula kooperatzeko, euskara helburu jarrita. Horrek lagundu du ekosistema aberatsagoa sortzen, berritzen eta egokitzen... Ekosistema sinpleago bat, erakunde gutxiagorekin eta lehiarik gabe defendatzeko argudiorik ez dago. Alderantziz, esperientziak erakusten du ekosistema konplexuak ahalbidetu duela euskara biziberritzea. Horrek ez du esan nahi kooperazioan aurrerapausorik eman ezin denik". ■

ARGIA Jendea egiterakoan emandako arrazoia

"Euskal hedabideei laguntzea"

Irati Lukas, Zeanuri

Hurrengo astekaria apirilaren 15eko data duena jasoko duzu

Apirilaren 8ko data duen astekaririk ez dugu aterako. Astebete jai egingo dugu, urtero bezala. Indarrak hartuta itzuliko gara bi aste barru. Irakurle estimatua, noizbait irakurtzeko pilatuta ditugun artikulatuak gozatzeko aukera ederra dugu.



Olatukoopen batzarra

Martxoaren 17an Hernaniko Garapen Agentzian elkartu ginen ekonomia sozial eraldatzailerako sareko kideak. Urtebeteko egituratze prozesuaren ondoren, hurrengo erronkei nola heldu eta esku artean ditugun proiektuen inguruan hitz egin zen.

AGENDA

Zuloan liburuaren aurkezpen hitzaldiak. ARGIAko Urko Apaolaza AHTko obretako lan baldintzez mintzatuko da.

- Apirilaren 12an, Donostian.
17:30ean Txantxarreka Gaztetxean. Igor San Josek Anoetako obrez ere hitz egingo du. Manu Robles Arangiz Institutuak antolatuta.
- Apirilaren 19an, Iruñean.
19:30ean Karrikiri elkartearen. Manu Robles Arangiz Institutuak antolatuta.



Rukula

“Bakoitza libre da gurekin nahi duena sentitzeko”

Gero eta gutxiago dira Rukularen zuzeneko indartsuaren parte izan ez direnak. Asteburuko kontzertu agendan beren izena ikusiko duzu ziur asko. Laster argitaratuko dute bigarren diskoa ere. Kaosetik ordenara eta ordenatik kaosera bizi dira, eta tentsio horretatik sortzen dituzte kantak ere. Taldeak bizi duen une indartsua aitzakia hartuta mintzatu gara laukoteko hirurekin.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Andoingo Itsas Mendi Karabanen ondoko errotondan zitatu gara, aurtengo neguko egunik hotzenean, eguzki betetan ere apenas bi gradu direla. Goiza Garate estudioetan pasa nahi genuen, elkarrizketa egiteaz gain, Rukularen entsegu bertatik bertara bizitzeko. Jon Agiriano taldeko gitarrak ezin izan du azaldu, ordea, “Irudia eta soinuak” ziklo amaierako lanean buru belarri baitabil, Andoainen bertan. B plana inprobisatu dugu, hortaz: herri sarrean aparkatu, eta parean suertatu den Edur tabernan babestu gara ordu eta erdi inguruz. Hurrena entseatzeko gelditzen direnean, bertaratuko da argazkilaria unea jasotzera. Grabagailuan taldekideen ahotsak bezainbeste aditzen dira bertatik bertara daukagun telebistako Ana Rosaren magazineko builak eta Pott zakurraren arnas hotsak. “Pirritx, Porrotx eta Marimototsen bideoklip bat grabatzen izan berri da”, azaldu du Oihan Agirretxe bateriak. Harez gain, mahai bueltan dira Martxel Arkarazo baxularia eta Aitor Pagola gitarrista.

Rukularen hastapenez galdetuta, ez dira ados jarri. “Lehen entsegutik izango dira pare bat urte honezkero”, dio batek. “Pare bat? Lau gertuago izango ditiagu”, beste batek. Hazia noiz sortu zen bai, hori ongi oroitzen dute Arkarazok eta Agirretxek. Usurbilgo Sagardo Egun batez, Agirretxe bere orduko berbena taldearekin bateria jotzen ari zela, Arkarazo inguruan suertatu zen. Agirretxeri erreparatu, eta intuizio batek hartu zuen. “Oso zuzen ari zela iruditut zitzaidan, tu-pa-tu-pa, une hartan pentsatu nuen primeran egingo zuela bat nirekin, asko eman zezakeela”. Berroaldiak jota, akziora pasatzea erabaki zuen. Bateriaren goiko talaatik, entzule bat beragana zetorrela ikusi zuen Agirretxek, eskuan paper bat hartuta. Ohar-terako, paper zatia baterian itsasi eta martxa egin zuen. Kanta amaitzean irakurri ahal izan zuen oharra: “Berbenaz aspertzean, deituidazu”.

“Ez dakizu zenbat kostatzen zaion mozkor bati parrandan papera, boligrafoa eta zela topatzea”, esan izan dio gerora txantxetan Arkarazok Agirretxeri. Kontua da Sagardo Eguneke buruko minak arindu bezain pronto deitu ziola, hasi zirela elkartzeko, eta hura izan zela egun Rukula bihurtu denaren hazia.

“Ez nion deitu berbenaz aspertuta nengoelako”, argitu du Agirretxek, “neu-

re kanta propioak sortzeko gogoa ere baneukalako baizik”. Handik puska batera batu ziren Aitor Pagola eta Beñat Irazusta, ordura arte Desegin taldean ibiliak. Azkenik, Irazustak denboraldi batez bidaiatzea erabaki zuenez, Blaka taldeko Jon Agirianok ordezkatu zuen. Garate estudioetan grabatu zuten lehen disko homonimoa, eta egin zuten bira bat Madrilen, Segovian, Logroñon, Mostolesen, Durangon eta Tosun zehar. Gehienetan, Arkarazok eramaten zuen kanten lehen ideia. Garbi zeukan Rukularekin zer bilatzen zuten: “Rock kontzertu pila batean ikusten nuen jendea burua gora eta behera mugitzen, bere tokitik mugitu gabe. Bateriaren eta baxuaren indarra erabili nahi nuen jendea gurekin batera mugi zedin, gorputzari beste poz bat eman nahi nion”.

Musika estiloak txikitu, baina era berean dena oso erritmikoa izan zedila. Instrumentu bakoitzarekin espero dena egin beharrean, dena nahastea, baxuak ez zezala eman baxua, gitarrak ez zezala eman gitarra, baizik eta *synth* moduko zerbait. Eta beti kutsu dantzagarri bat bilatzea, baina estilo batera mugatu gabe”. Agirretxek baieztatu du teoria: “Martxelek esaten zidan: bateria jotzean dantzatzeko ari al haiz? Eta erantzuna ezezkoa bazen: orduan ez dik balio”. Hiruei iruditzen zaie taldekide guztiak oso desberdinak direla beren artean, eta hain justu tentsio horrek orekatzen duela taldea. Arkarazok azaldu du: “Aitor da ordena, oso garbi ditu gauzak, eta horrek asko ematen dio taldeari. Ni, ordea, kaosa naiz. Hasieran asko eztabaidatzen genuen. Hori ezin da egin, esaten zidan Aitorrek sarri, eta nik, nola ezingo da ba egin?”, erantzuten nion. Beñatek ematen zion punk kutsu agresibo hori, eta orain, Jonek ekarri ditu rock akordeak, pedal soinuak eta abar”.

Gidoi itxien aurka

Kontzertuetan gertatzen dena aurreikusgarri samarra delako sentsazioa izaten du batek sarri. Aretoan sartu, tragoren bat eskatu, musikariei begiratu pantaila bati nola, lepoarekin gora eta behera egin, txalo jo, oihuren bat bota, beste bat eskatu, eta etxera. Rukulak ordea, asmatu du artistaren eta publikoaren arteko hormigoi armatuzko horma pitzatzen, ez direlako gidoi itxiarekin joaten zuzenekoetara. “Zati batzuetan inprobisatu egiten dugu”, dio Arkarazok.

“Batzuetan nik agintzen dut, beste batzuetan Oihanek erabaki dezake une bat minutu batez luzatzea, gustura dagoelako. Era horretara, zuzeneko bakoitza bihurtzen da desberdina, inoiz ez dugu-lako berdin jotzen”.

Ez hori bakarrik. Rukulakoek baldintza bat eskatzen dute ahal duten guztietan: lurrean jotzea, publikoarekin parez pare. Hartara, jendea sartzen zaie beraien artean, musikariaren eta entzulearen rolak apurtzen dira. Nahaspila horretan, kontzertua festa bilakatzen da, eta festako kide bakoitzak erabakitzen du agente aktibo ala pasibo izan nahi duen. Pagolak oroitu ditu une bitxi samarrak: “Behin, kontzertu batean, publikoak amaitu zuen bateriaren eta gure (gitarren eta baxuaren) artean, eta guk, berriz, atze-atzean, publikoa bagina bezala”.

Edonon jotzeko prestatuta daukate ekipoa. Nonbait entxufe bat egotea aski da Rukulakoek bertan jo ahal izateko. “Iritsi, bozgorailuak entxufatu, eta bada-kigu ondo entzungo dela, guztia baitago bateriaren soinuarekin ondo erregulatuta”, azaldu du Agirretxek. Oroitu du horrekin lotutako pasadizo bat: “Iazko Lasarte-Oriako festetan, Efecto Pasillok jotzen zuen txosna handian, eta guk haien ondoren, plazako arkupe batean. Baina haien kontzertua luzatu egin zen, eta segidan berbena talde batek hasi behar zuen. Berbenakoak hasi egin ziren, eta gu gelditu ginen non jo ez genekiela. Emanaldia bertan behera uztear ginen, inguruan beste arkupe bat ikusi genuenean. Oholtzatik kable bat atera, eta hantxe bertan jo genuen”.

Talde instrumentala da Rukula, eta ahotsik ez izateak ere laguntzen die noranahiko formatu horretara egokitzen. “Ahotsa arazo bat da edonon jo nahi baduzu, ze derrigortzen zaitu monitore bat edukitzera”, azaldu du Arkarazok. “Era horretara nekez jo dezakezu lurrean”. Dena dela, hastapenetan izan zuten ahots bat sartzeko asmoa. “Nire bozka ahots baten aldekoa zen”, dio Pagolak. “Ez genekien, ordea, zer ahots mota nahi genuen. Ez genion edonori proposatu nahi”. Arkarazok abantaila asko ikusten dizkio ahotsik ez izateari. “Ahotsaren zatia beste errekurso batzuen bidez estali dugu: batzuetan gitarrak egiten du melodia, besteetan baxuak, zati erritmiko hutsak ere sartzen ditugu, garrasi batzuk tarteka ere



bai... Apustu oso erritmikoa da gurea. Gainera, letrarik ez edukita, askozaz ere libreago uzten duzu dena. Bakoitza libre da gurekin nahi duena sentitzeko". Agirretxeren arabera, ahotsik ez edukitzea aukera eta zama da aldi berean. Kantari nahi beste irakurketa egiteko aukera ematen du batetik, baina, bestetik, musikaria behartzen du zati instrumentaletan sakontzera, instrumentuen bidez bidali nahi den mezua are gehiago zehaztera.

Azken urteetan sortu dira talde instrumentalak. Sofa, Buffalo edota Giranice otu zaizkie boteprontoan. Arkarazoren ustez, letrik garrantzia daukate, "sekulakoa". Aipatu duenez, Rukulak letrarik ez edukitzeak ez du esan nahi ezer transmititu nahi ez duenik. "Nik oso garbi daukat zer helarazi nahi dudan momentu bakoitzean. Askotan hitz egiten dugu sentimenduez konposatzen dugunean. Zati batean tentsioa egon daiteke, bestean amorrua... ideia horiek letrarik gabe transmititzen saiatzen gara". Eta hortik tiraka jartzen dituzte kanten izenburuak ere. Asko anekdotikoak dira, Agirretxek azaldu duenez. "Adibidez, *Oilo bus tee* [ahapetik kantatu du]. Martxelen etxean entseatzen genuen lehen, Usurbilgo baserri batean. Oiloak zeuzkaten han, eta kanta horrek bete-betean gogorarazten zigun oiloen ibilera".

Talde nomada

Zuzenekoekin hasteko ez zuten presa berezirik izan. Kanten atzean, ikusten ez den lan handia dago, Arkarazoren arabera. "Ematen du oso modu intuitiboan jotzen dugula, baina mila buelta eman dizkiegu kantei". Pagola ere horretan dago: "Gertatu izan zaigu, adibidez, kanta bat jotzen bi hilabete pasa eta halako batean ohartzea ez duela balio, ez duela asmatzen esan nahi dugun hori esaten". "Halako uneak gogorak izaten dira", gehitu du Arkarazok, "baina behin nahi duzuna lortzen duzunean, poza bikoitza izaten da". Rukulak ordu asko eskaintzen dizkio kanta osatu eta entseatzeari. "Langileak gara", dio Arka-

» MARTXEL ARKARAZO:

"Apustu oso erritmikoa da gurea. Gainera, letrarik ez edukita, askozaz ere libreago uzten duzu dena"

» AITOR PAGOLA:

"Gertatu izan zaigu kanta bat jotzen bi hilabete pasa eta halako batean ohartzea ez duela balio"

razok, "grabaketak egin eta elkarri bidaltzen dizkiogu, eta ahal badugu asko elkartzen gara".


Ez dute errutina zehatzik, ordea, sekula ez baitute entsegu lokal finkorik eduki. Arkarazoren etxetik Usurbilgo Gaztetxera joan ziren. Baina zonalde hartan etxeak eraiki behar zituztela eta, Gaztetxea itxi zuten. Garate estudioetara jo zuten segidan, baina grabaketa lanak direnetan han ezin izaten dute aritu. Oraindik toki baten bila jarraitzen dute. "Lokal pribatuak ezin ditugu ordaindu, ez dugu hilero 300 euro ordaintzeko adina", dio Agirretxek. "Agian probatuko dugu kontzertu asko ditugun hilabeteren batean lokal bat hartzea, baina bestela...". Entsegu bakoitzean ibili behar izaten dute kotxea gitarraz, baxuz eta pedalez gainezka dutela, alde batetik bestera. "Taldea nomada gara", dio Agirretxek, eta ez da soilik entseguetz ari. "Rukularen bizitza halakoa da. Sortzeko unea, zuzenekoetan... behin Baigorriara joan behar genuen, Nafarroaren Egunean kontzertu bat ematera. Aitor bere kasa joan zen, eta beste hiruok elkarrekin abiatu ginen, oso garaiz. Iruñetik joan ginen, lehenago iritsiko ginelakoan. Pasatu genuen Iruñea, jarraitu genuen aurrera... eta, azkenean, muturren parean ikusi genuen gure helmuga: *Bodegas Baigorri*. Aito-

rri deitu genionean, ezin zuen sinetsi. Arabako Errioxan geunden. Azkenean, buelta hartu eta lortu genuen kontzertua baino hamar minutu lehenago iristea. Jonnek gurekin jotzen zuen lehen aldia zen. Flipatu egin zuen".

Saiakera onaren bila

Entseguetan eta zuzenekoetan gozatzeko dute gehien. Diskoa grabatzen ere bai, grabaketa unea zuzeneko bat bezala ulertzen dutenez gero. "Bigarren lan honetan, denok gela berean sartu eta saiakera onaren bila aritu ginen", dio Arkarazok. "Egiten genituen akatsak, baina guretzat benetako galdera beste bat zen: kanta transmititzen al du guk nahi duguna? Baiezko kasuan, listoa, ez genuen ezer ukitzen. Akatsak ere kantaren parte dira". Noski, horrela funtzionatzeko izan ohi ditu gorabeherak. Pagolak oroitu ditu grabaketa egunetako une gazi samarrak: "Lehen eguna oso ondo joan zitzaigun, baina bigarren egun kanta batekin ez aurrera ez atzera gelditu ginen. Bazkaltzera jaitsi, berriz gora igo, sokak aldatu... baina alferrik: ez zitzaigun ateratzen. Zortzi ordu behar izan genituen kanta grabatzeko". Hirugarren egunean, ordea, txipa aldatu, jarrera positiboarekin itzuli, eta beste hiru kanta grabatu zituzten errenkadan.

Diskoaren promozio kontuetan galdu egiten direla diote, ez zaiela batere interesatzen. Inguruko lagunei eskerrak moldatzen direla aitortu dute. Ariadne Aranburuk egin die azala, baita bi bi-deoklip ere. Edo, estudioan, diskoa grabatzen ari zirela, norbait behar izaten zuten *Rec* botoiari sakatzeko. "Sei bat lagun desberdin igaroko ziren botoia sakatzera", diote barrez. Estudiotik igaro ostean, zuzenekoak emateko eta kanta berriak egiteko gogoz dabilta. Hala dio Agirretxek: "Gu ez gara psikologoarenera joaten, gu entseatzera eta kontzertuetara joaten gara. Lana eskatzen du, baina betetzen gaitu. Ipurterreak gara, ezin dugu geldirik egon, eta Rukulak laguntzen digu ezinegon hori zerbait probetxuzkora bideratzen". ■



Xare Alvarez Berakoetxea

Materia eta forma



Xabier Gantzarain
@gantzarain

15/32 (2016)

Morteroa eta altzairua. 60 x 90 x 50 cm.

Batzuetan erreferentzia garbia da, eta materiak harritzen zaitu: indioilarraren bi luma, metalizatuak, marmorezko euskarri batean sartuak. 2017ko Antton Abbadia saria jaso zuenean Ibon Sarasolari eman zioten oroigarria berak egin zuen. Beste batzuetan ez dago erreferentzia argirik, materia baino ez duzu begien aurrean, materia eta forma, eta orduan hagitzez ederragoa da, enigmatikoa.

Gaztea da Xare Alvarez Berakoetxea (Donostia, 1990eko ekainaren 25a). Pauso sendoz hasi du bidea: Parisen erakutsi du, Bilbon, leku askotan; bekak jaso ditu, sariak han eta hemen. Ohorez-

ko aipamena jaso zuen 2016an Gipuzkoako Artista Berrien programan, hemen ikus dezakezun lan honekin: 15/32.

Ikuslea iristen da lanaren aurrera eta galdera sortzen zaio: zer da hau? Harria dirudi, astuna ematen du, altzairuzko beso sendo batek dauka paretari lotuta, besoa bera ere piezaren parte bihurtzeraino. Aztarna bat ematen du, auskalo nondik iritsitako harri bat, fosil bat, aztarna bat inolaz ere. Zeren aztarna ote da hau? Enigma martxan da. Gero izenburua daukazu, 15/32, signatura bat, kode bat akaso?

Azalpenak enigma ederrago bilakatzeko du. Izenburua lanari buruz ari da,

beti bezala, baina ez dio lanari testuiguru bat eman nahi, lanaz kanpo dagoen erreferentzia bat, ikusleak beste zerbaitekin lotzeko pista bat, askotan gertatu ohi denaren kontrara. Aldiz, lanaren muinari dagokio, prozesuari buruz ari da, materiari buruz: 15 litro ur, 32 kilo zementu. Horixe da dena.

Eta ikuslea badoa erakusketatik, eta arte lana materiaren aztarna dela oharitzen da, arteak beharbada gauzen materialtasuna bera ekartzen digula muturren aurrera, gehienetan gure begiek ikusi ere egiten ez dituzten gauzak, beste denbora bat. Beste denbora bat, aztarnarik ezaren aztarnak ikusteko. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gure-gurea



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Belen Gopegui ez da euskalduna, ez euskal herritarra, nahiz Araba aldean baden abizen bereko herritarra bat (273 biztanle, azken kontaketa arabera). Hori izan zen aspaldi xamar euskarazko medio batean egin zioten elkarrizketa bateko lehen galde-erantzuna (biztanleen datua nik gehitu dut, interesatuko zaizuelakoan). Ez dakit zaputuz izpirik sentitu ote nuen informazioa jakitean, jarraian irakurri nituen galde-erantzunak interesgarri askoak iruditu baitzitzaizkidan, eta ordura arte nekez irakurritakoak.

Geroztik, saiatu izan naiz Gopeguiren gauzak harrapatzen, ez bakarrik elkarrizketak, libururen bat ere bai (*La conquista del aire* dut bereziki gogoan, akaso lehena izan zelako). Hartara, apirileko urik eza bezain eskergarria egin zitzaidan *Tiroa kontzertuaren erdian* liburuaren argitaratzea, 2011n. Berez hitzaldi bat da, 2006an Kaliforniako unibertsitate batean emandakoa, publikoaren galderak eta horiek jasotako erantzunak biltzen dituen. Azpitituluak argitzen digu edukia: *Eleberrietan politikaz aritzeari buruz*. Bere laburrean luzea da ematen du jokia.

Gopeguik dio: "Kontzertuaren erdian pistola-tiroak nola, halako eragina du literatura-eleberrietan politikari buruz aritzeak". Alegia, "kontzertuan pistola-tiroa entzutearen modukoa izango litzateke sistema berria ezarri nahian dabilzan norbanakoei buruz idaztea, horiek totalitarizmatzat, gaixotzat, inozotzat, eta abartzat hartu gabe". Eta ez dugu testua gehiegi

Tiroa kontzertuaren erdian

BELEN GOPEGUI

Itzultzailea: Ainhoa Caballero
Txalaparta, 2011

Belén Gopegui espainiar eleberrigile eta gidoilaria (Madril, 1963).



biluziko, baina bai aurreratuko, hitzaurrean esaten den bezala, "literatura eta iraultza binomioaren harreman gatazkatsua" aztertzen duela, "eleberrietan politikaz jarduteko dagoen debeku eta auto-debekuaren jatorria bilatuz eta aurkituz". Kontxo, behingoagatik, ez bakarrik galderak, erantzunak ere ematen ditu norbaitek, besterik ez bada eztabaidarako.

Aparteko aipamena merezi du, hain zuzen, Eider Rodriguezek idatzi hitzaurreak, bere laburrean honek ere jokoa ematen baitu. Gopeguik aletzen dituen ideiak euskal literaturaren eremura ekartzen dira, izen-abizenekin ekarri ere, adibidez, elkar uler dezagun: "Xabier Leteren *Heriotza utopi izendatu dutenei* poema Joseba Sarrionandiaren *Literatura eta iraultza* poema baino apolitikoagoa al da?".

Eta Belén Gopegui ez da euskalduna, ez euskal herritarra, baina, liburu honetan egin bezala, ezin ukatuko diogu gure-gurea ere baden problematika batez hain argiki idatzi izana. ■

» DISKOA

Punk-rockaren historia berri datzita



Iker Barandiaran

1980ko hamarkada bukaeran Euskal Herriko punkaren urte distiratsuak apaltzen zihoazen, 1977ko Ingalaterrako punketik inportatutako garraztasuna ez zen lehengo bera eta mezuak errepikatzen ziren. Halako batean Donostiako auzune batean AEBetako eta Europako bestelako punk-rock talde korronteei arreta jarri zien La Perrera talde amorratua jaio zen: hemen ezagutzen ez genituen erreferenteak (Loveslug, Dictators, Angry Samoans, Dead Boys, MC5...) errebindikatu eta hain politikoak ez ziren hitzak idazten. Bost urte eskaseko ibilbide basatia egin zuten, ezjakintasunaren eta indiferentziaren aurrean bidea zabaltzen, eta justu onespina lortzen hastean, taldea bertan behera utzi zuten.

Urtebetera La Perrera kideetako bik –Arturo eta Gonzalo Ibañezek– Nuevo Catecismo Católico (NCC) sortu zuten; eta beste bik –Xabi Garrek eta Mikel Serranok– Señor No, hain justu Euskal Herriko eta oro har Espainiako Estatuko punk-rockaren oinarri bihurtu diren bi talde handi. Hala, 2017an NCCk 25 urte bete zituen eta bidean inoiz hutsik egin ez duten ehunka eta ehunka kontzertu gogoangarri, zazpi disko luze, single ugari eta kolaborazio

Antología 1992-2017

NUEVO CATECISMO
CATÓLICO

Autoekoizpena, 2017

*Nuevo Catecismo Católico,
Donostiako punk musika taldea.*



dezente. Hori ospatzeko, honako bilduma interesgarria kaleratu dute CD bikoitzean batuta, ibilbideko atzoko eta gaurko 46 kanta ezagun zein ezezagun; baita Dani Mortajak idatzitako taldeari buruzko 68 orrialdeko liburuxka oso-oso osatu bat ere.

La Perreraen ildoari jarraituta, baina estilo gehiagorekin aberastuta, punk-rockari ñabardura gehiago eskaini dio Nuevo Catecismo Católico bere ibilbidean, betiere estilo handiko rock amorratuaren koordenadatan, musikaren gaineko ezagutza handia erakutsiz. Lehen CDan maketako eta hastapenetako diskoetako hainbat perla, zuzeneko piezak, Chockablock estudioko zenbait hartze, eta Dead Boys, Wayne Conty, Rose Tatto, The Flammin'

Groovies eta RIPen bertsio inspiratu bana. Bigarren CDan azken lanetako perlak, tartean Chockablock estudioko sesioetakoak, Bonberenea estudiokoak, Tolosan zein Oviedoko Crossroad jaialdian El Vez-ekin batera egindako zuzenekoak, singleetako pieza ezezagunak eta La Banda Trapeza, UK Subs edo Dead Boysen bertsioak aurki ditzakegu. ■



Sahararrok

MDOU MOCTAR

Gasteizen, EHuko unibertsitate pabilioian. Martxoaren 14an, 19:00etan.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

ARGAZKIA: DOSPORDOS

Bide luzea egin zuen, itxura denez, Mdou Moctar musikariak asteazken batez Arabako EHuko campusean agertzeko. Bere jaioteritik, Abalak (Niger), Sahararen hego ertzetik, Sahel igarobidetik irten zen garai batean basamortua zeharkatzeko karabana. Gaur egun, han batzen omen dira Europara etorri nahi duten afrikar asko, Sahara gurutzatzeko asmoz.

Berak bide luzea du egina, baita bere musikak ere. Tamaxek hizkuntzan kantatzen omen du maitasunaz, hezkuntzaz, bakeaz eta Islamaz. 2000ko hamarkadan grabatu zituen lehenbizikoz bere kantuak, Nigeriara joanda, eta lan hari *Tahoultine* deituko zion. Zabaldurordea, diskoa batean eta bestean saltzen ibili beharrean, Sahelen ohikoa izan den moduan, antza, sakelako telefonoen eta SD txartelen bitartez zabaldur ziren bere kantuak, baita ederki zabaldur ere: inguru hartako musikaririk arrakastatsuenetako moduan etorri zaigu geure

belarrietara, Tinariwen, Bombino eta Tamikrest-ekin batera.

Tuarega da Mdou, eta euren herriko janzkerarekin igo ziren taula gainera taldeko bi gitarra-jotzaileak; bateria-jotzailea, janzki mendebalderrez. Hirukotea osatuta, argitaratuta dituen lau bildumetako kantuak jo zituzten ordubete pasatxoan. Egituraz oso kantu berdintsuak guztiak: gitarrarekin jolasean hasi, eta inor konturatzeko eraikita zuten kantuen bizkarrezurra; tarteka kantuan, gehienetan gitarrarekin melodiak eginenez; taldekideek, berriz, bakarlariaren laguntza soilak –eta dotorea– egin zuten.

Gitarra jotzen ezkerrean, instrumentuarekin iaioa zela nabarmen zitzaion Moc-tarri: gehienetan melodiko eta patxadaz, batzuetan Yngwie Malmsteen-en abiaduraz harro eta urduri aritu zen kontzertu guztian. Jarreraz umil, ikusentzuleoi behetik gora begira, tartekako *Thank You Merci*-ez gain ez zuen beste hitzik egin.

Badute kantuek halako mantra kutsu bat, batez ere, erritmoak eta behin eta berriz errepikatzen diren melodiekin hartara eramanda, gerririk gogorrena ere dantzan jartzeko modukoa. Ez zen, ordea, asteazken horretan dantza saio labur batetik haragorik izan.

Sahara Rock jartzen zion gitarran itsatsita zuen pegatina batekin. Halaxe definitu izan dute estilo hau, edota *Sahel Rock*. Ez naiz halakorik egitera ausartzen. Gehiegizkoa iruditzen zait Europa halako bi edo hiru den lurralde bateko musika guztia izen bakarrarekin definitu nahi izatea.

Kontatzen dute AEBetako bluesman zahar bati jarri ziotela behin Ali Farka Toure musikari maliarraren kanturen bat, eta berea baino lehenagoko bluesa zela iruditu zitzaioela. African Blues deitu zioten, esklabotzaren bidea zein izan zen ahaztuta-edo. Sahara bera baino handiagoa da “lehen munduko” deitakoon zilborra. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Word search grid with clues in Basque and a central image of a woman.

ALE, GARAU ZUREZKO JOSTAILUA	BASO, OIHAN PERTSO- NAIAREN ABIZENA	LATORRIZKO ONTZIA	PARE BAT JABETASUN ATZIZKIA	GAIXO LETRA IZENA	EGITE TXAR ARRETA JARRIZ	NAHITA, APROPOS LAUSOTU
HARA JOAN AKORDEEZ MINTZATUZ, KONTSONAN- TEA EZ DENA	ADIA, AUHENA OTZAN BIHURTU	ADITZERA EMATEN DUENA AUZITEGI NAZIONALA	SIRIAKO BIZTANLE TONA	PIRATEN EDARIA SUARI DA- RIONA	BROMOA EMAKUMEZKO IZENA	HARTU PERTSO- NAIAREN IZENA
NAZIOARTE- KO OLINPIAR BATZORDEA	INFUSIOA UKATZEKO	HASERRE BIZI	MEGA UNEKO EGU- NEAN	ADAR TXIKI ETA MEHE AINTZIRA	RUTENIOA ZUZEN, TENTE	NEUK
KONPARAZIO- ATZIZKIA INARROSTE- RA BEHARTU	LOTAN BAKOITZA- REN JOKA- MOLDE	ZIZARE IZAERA EDO ZENTZU EGOKI	LITROA MUSIKA ESTILO	NEWTON GASTEIZKO MUSIKA TALDEA	OGERLEKO ADIMENAZ BALIATURIK ZERTZEN DEN LAN	IKUSTARAZI ANPEREA
			UZKERRAK			

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

4	8							
	7				6	5	8	
5		6	2	8				9
				7	2			5
			3		1			
1			6	5				
7				2	9	3		8
	3	8	4				1	
							5	2

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

- 1. Korrokoi.
- 2. Ohar.
- 3. Doilor, zikoitz.
- 4. Erabili.
- 5. Baliorik gabea.

Ebazpenak

5x5 grid with letters and a list of words to find.

5. Nulu
4. Usatu
3. Zital
2. Abisu
1. Lazun

5x5:

4	8	9	5	1
3	7	2	6	4
2	5	1	7	3
1	6	2	8	3
5	1	6	2	8

Mikel Serrano. Zinemak badu artea.



Goya sariarekin batera etorri zaio elkarrizketa zaparrada Mikel Serranori (Iruñea, 1975), eta nekatzeraino aritu da *Handia* filmaz batean eta bestean. Akaso horregatik, eskertu du pelikulaz harago ofizioaz ere hitz egitea. Mantso mintzo da, esatera doana ongi irudikatu beharko balu bezala. Ez du alferrik pentsamendu bisuala lanabes nagusi.

“Zuzendari artistikoak istorioa aberastu behar du, baina estali gabe”



Ander Perez

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Aktoreen ingurukoari so

“Zientzia fikzioaren mundua izan dut gustuko txikitatik. Agian horregatik, beti jarri dut arreta pelikuletako alderdi estetikoetan, dekoratuetan, irudietan. Arte Ederrak ikasten nembilela, laburmetrai batean lan egiteko deitu zidan lagun batek. Han hasi nintzen zineman profesionalki ari ziren batzuk ezagutzen. Geroztik, lanean ikasi dut ikasi dudana. Atrezzista modura hasi, eta arte zuzendari laguntzaile aritu nintzen gerora, *80 egunean* filmean, adibidez. Horren ostean eskaini zidaten zuzendari artistiko izatea. *Loreak*, *Amama* eta *Handia* pelikuletan aritu naiz zeregin horretan. Azken honekin eskuratu berri dut Goya saria, zuzendaritza artistiko onenagatik”.

Mila aldiz galdetuko zizuten, baina, zein da zuzendari artistikoaren lana?

Film batean ikusten denari aktoreak eta haien lana kentzen bazaizkio, geratzen denaren erantzunkizuna da nirea, argia izan ezik, argiztapen lan bat baitago, eta argazki zuzendaritzaren lana da hori. Pantailan ikusten denaren inguruko erabakiak filmaren zuzendariak eta zuzendari artistikoak hartuak dira. Sinplifikatuz, dekoratuaren diseinua, atrezzoaren aukeraketa, koloreen aukeraketa... Hori da gure lana.

Zinema iruzurra bada, beraz, zu zara iruzur horren konplize?

Zinema iruzurra da, berez, magia hori duelako. Gure lana, gehien bat, filmaren zuzendariak bilatzen duen estilora moldatzea da, ezin da inoiz gainetik egon. Azken finean, zuzendaria da denaren erantzunkizuna daukana. Beraz, aurrean duzun filmaren estiloa zein den, zuzendari artistikoaren lana izan daiteke iruzur hori bilatzea, edo errealtateari ahalik eta gehien eustea. Nik egindako lanetan denetarik egon da.

Oharkabe pasatzen dena omen da zuzendari artisikorik onena.

Horren alde nago ni, bai. Zuzendari artistiko batentzat, interesgarria da film batek nolabaiteko mundu pertsonal bat sortzeko aukera eskaintzea, baina filmak ez badu eskatzen, eta hala ere zuzendari artistikoa horretan tematzten bada, azkenean, lan hori gehiegi nabarmenduko da, eta hori ez zait batere gustatzen. Zuzendari artistiko batek eta hark diseinatzen duen dekoratuak istorioaren parte izan behar du, eta berau aberastu behar du, baina benetako istorioa estali gabe.

Zuenak, izan ere, eragin zuzena du istorio eta pertsonaiengan. Ez da dekoratu hutsa.

Guk, dekoradore moduan, ez ditugu ohiko dekoradore batek erabiltzen dituen tresnak erabiltzen, azken batean, sortzen dugun estetika pertsonaia batera moldatu behar delako, eta pertsonaia horri buruz gauza pila bat esan behar dituelako. Oso interesgarria da, egoe-ra bera aberasten duelako. Pertsonaia bat ezagutu daiteke bere atzekoa ikusi-



ta, eta egoera bat ulertu daiteke atzeko hori horretarako diseinatuta dagoelako, eta ondo diseinatua dagoelako.

Zein da zuen lan prozesua?

Lehenbizi, ideiaren irakurketa eta hausnarketa pertsonala egiten da, eta ondoren, zuzendariarekin aztertzen da gidoia, eta istorioaren zein pertsonaien estiloa finkatzen da. Horrekin hasten gara pelikula bera eraikitzen, bai koloretan, bai testuretan, eta baita espazioaren ezaugarrietan ere. Bide horretan argazki zuzendariarekin ere lan egiten da, eta beste film edo artelanetako erreferentziak erabiltzen dira, ideiari forma emateko, zer bide jarraitu jakiteko.

Handian, zein izan zen erronka?

Soiltasuna da filmaren ezaugarri nagusia, eta hori izan zen erabakirik onena ere. Istoriaok berak halako zerbait eskatzen zuen, eta produkzio kontuetan ere lagungarria izan zen halako erabaki bat hartu izana. Oso proiektu zaila zen, XIX. mendeko giro bat sortu behar genuelako, eta Europako puntu ezberdinetan

“Orain arte, euskaraz egindako film batek hainbat harresi zituen apurtzeko. Orain, tira, zeozer apurtu da”.

gertatzen zelako istorioa, baina Euskal Herritik atera gabe lortu behar genuen toki horiek erakustea. Oroitzapen bikaina dut, batez ere, parte hartu genuenok proiektuaren alde egin genuelako. Elkarri erraztu genion lana.

Hamar Goya sari eskuratu ditu filmak, eta zuretzako izan da horietako bat. Nola bizi izan duzu arrakasta hori?

Ilusio handiarekin, poztasun handia eman digulako, pertsonalki eta kolektiboki. Nik sorpresa handia hartu dut, *Handia* egin genuenean ez genuelako horrelako helbururik, ez genuen horretan pentsatzen. Pelikula on bat egin nahi genuen, baina ez zegoen beste anbiziurik, eta alde horretatik, harrigarria izan da. Bestalde, asko poztu nau jendearentzako oso film inportantea bihurtu dela ikus-teak. Pelikulak lortu dituen sariak eta aitortzak garrantzitsuak izan dira jendearentzat; euskaraz egindako pelikula bat puntu horretaraino iristeak harrotasuna eman dio jendeari, eta polita izan da hori.

Jendeak filma bere sentitu izan balu bezala, nolabait?

Bai, hori da. Gainera, pelikula honek euskaraz ez dakien publikoa ere hurbildu du euskal zinemara, eta hori oso ondo dago. Azken finean, jende batek galdu du euskarari zion nolabaiteko beldur hori. Agian asko esatea da, baina orain arte euskaraz egindako film batek hainbat harresi zituen apurtzeko. Orain, tira, zeozer apurtu egin da. Pentsa dezagun ondoren datozenek ez dutela arazo hori izango, edo ez behintzat hainbestekoa.

Ofizioaren prekarioaren aurrean, aringarri ote dira sariak?

Oso inportantea da sariaren neurriaz jabetzea. Sariak zinemaren industriaren parte diren askoren erabakien ondorioz eman dizkigute, eta hori inportantea da. Baina egia da eguneroko errealitatea hor dagoela, eta sariak ez du hori ezabatzen. Beraz, jarraitu behar dugu lanean, telefonoak noiz joko zain. Pelikulak ez dira sarien bitartez egiten. ■



Emakumeak enpresa mundura erakartzeko, Confebaskeko presidenteak striptease bat egingo du

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako potronaleko buru Roberto Larrañagak adierazi du emakumeek joera dutela "gaizki ordaindutako lanak aukeratzeko". Mania horren kontra, Larrañagak iragarri du Confebask ekintzara pasako dela eta emakumeei enpresa mundua erakargarri egiteko programa bat jarriko dutela abian: "Enpresak sexyak dira, enpresarioak sexyak gara, baina batzuetan ez ditugu gure en-

kantuak behar bezala erakusten", azaldu du. "Pauso bat aurrera eman, eta nireak erakutsiko ditut". Bilboko Euskalduna Jauregian antolatu dute Full Monty-a eta sarrera doan izango da (Confebaskek historian lehenbiziko aldiz egingo du zerbait doan). Animalistek ikuskizunaren kontrako boikota deitu dute, baina bertan behera utzi dute gero, jabetu direnean ezetz, ez dela ematen zuena.

Urrezko Bota, Espainiako Estatuarentzat

Kataluniar prozesu independentistaren atean sartu dituen 347 golei esker, Espainiako Estatuak irabazi du Urrezko Bota garaikurra. Europako futbol ligak amaitzeko asteak falta diren arren, Messi eta enparauek ezinezkoa dute zifra horretara heltzea. CUP, ERC, PdCat, Junts per Cat, Omnium Cultural eta ANC saiatu dira atea hutsean mantentzen,

baina alferrik. Elkarri mokoka bukatu dute, gainera, eta bakoitzak klub propioa osatuko duela jakinarazi du. "Abixatu nizuen", bota die euskal prozesu independentistaren abanderatu Iñigo Urkulluk, zigarro bat erretzen duen bitartean bizkarra bere ateko zutoinean bermaturik, jakitun aurkariak ez zaizkiola oldartuko.

SAREAN ARRANTZATUA

MansPPreading



Eroskin ez dira moztzen



Fair Play saria Auzitegi Nazionaleko Llarena epaileari eman diote, Puyol batek gainera.

ZULOAN

Bidaia bat AHT
eta lan-esplotazioan
barrena

Urko Apaolaza Avila



ARGIA
// LIBURUAK //

14 €

AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

www.argia.eus/denda | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa

